

2011ko apirilaren 11n Bilbon

FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIEN LUZETARAKO AZTERKETA

Ref: I681110



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA**
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
*Familia eta Komunitate Politikarako
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES**
Viceconsejería de Asuntos Sociales
*Dirección de Política Familiar
y Comunitaria*

AURKIBIDEA

	<u>Orr.</u>
1.- SARRERA	2
2.- EUROPAKO ESPARRUAREN TESTUINGURUAN JARTZEA	5
3.- AZTERKETAREN HELBURUAK	29
4.- METODOLOGIA	30
5.- AZTERTU BEHARREKO UNIBERTSOAREN EZAUGARRIAK	35
6.- AZTERKETAREN EMAITZAK	40
6.1- Familia eta lana bateragarri egitera zuzendutako Eusko Jaurlaritzaren neurriei heldutako pertsonen profila.	40
6.2- Lan-egoera.	44
6.3- Familien ezaugarriak.	51
6.4- Rol familiarak. Etxeko lanen banaketa.	56
6.5- Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak enpresetan.	66
6.6- Familia eta lana bateragarri egiteko neurriei heltzeko motibazioak.	69
6.7- Asebetetze-maila lanean.	71
6.8- Familia eta lana bateragarri egiteko neurrien eragina norberaren eta familiaren asebetetze -mailan.	74
6.9- Familia eta lana bateragarri egiteko neurriei heltzearen ondorioak.	76
6.10- Familia eta lana bateragarri egiteko oztopoak.	80
6.11- Enpresen jarrera familia eta lana bateragarri egiteko neurrien aurrean.	86
6.12- Onuradunek familia eta lana bateragarri egiteko neurriei heldu izanaren ondorioz hautemandako balorazio soziala.	88
6.13- Lana eta familia bateragarri egiteko izan daitezkeen neurriak eta horiei dagokienez hautemandako bideragarritasuna.	89
7.- LABURPENA ETA ONDORIOAK	93
ERANSKINAK	109
TAULAK	110



1. SARRERA

Txosten honek EAEn bizi diren eta ardura familiarrak dituzten langileen babes eta diru-laguntza neurriak abian jarri izanaren eraginak aztertzen ditu; ardurok seme-alabak zaintzeko edota gaixotasun larriak dituzten edo mendekotasuna duten senideak zaintzeko izan daitezke, eta txosten honek hamar urte inguruko esperientziatik aztertuko ditu.

Lana eta familia bateragarri egiteko laguntza horien helburua lan-eskakizunen eta familia-arduren arteko oreka hobea lortzea da, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeari indarra emanez.

Bateragarri egiteko laguntzen araudia behin eta berriz aldatuta, horiek hobetu eta familiengan hautemandako behar berriei erantzun nahi izan da, baina horien ezarpenetik hamar urte igaro ondoren, ontzat jo da informazioa biltzeari eta lortutako datuen azterketa egiteari ekitea.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen luzetarako azterketa hau estatistika eragiketa bat da, Familien Babeserako Erakunde Arteko III. Planaren lanketa prozesuarekin hertsiki lotuta dagoena eta seme-alabak dituzten Familien Babeserako Erakunde Arteko I. Planean, 2001ekoan, duena aurrekaria; azken hori izan zen, era berean, 329/2003 Dekretuaren VI. Kapituluari, enplegurako laguntzak arautzekoan, sartu ziren familia eta lana bateragarri egiteko politiken jatorria.

2006ko Familien Babeserako Erakunde Arteko II. Planak neurri horien bultzada ekarri zuen, 118/2007 Dekretuan familia eta lana bateragarri egiteagatik diru-sarrerak murriztuta dituztenentzako zuzeneko laguntzak finkatu eta hedatu baitzituen.

Uneko IX. Legealdian, Eusko Jaurlaritzak lehenetsun gisa du familia eta lana bateragarri egitea, eta asmo horren buru izango da Lan eta Gizarte Gaietarako saila, hala islatuta, besteak beste, 177/2010 Dekretuan.



Estatuko testuinguruan, azaroaren 5eko 31/1999 Legeak, langileen familia eta lana bateragarri egitea sustatzekoak (266. BOE, 1999ko azaroaren 6koa), alderdi horiei erreparatzen zien. Herri Administrazioako Ministerioak eta funtzionarioen ordazkaritza duten sindikatuek hitzarmen bat sinatu zuten 2006an, *Plan Concilia* izenekoa, eta horren helburua zen funtzionarioen lan-baldintzak nabarmen hobetzea eta Espainiako Estatuko langile publikoen lana eta familia bateragarri egiteko garaian positiboki eragitea.

Gerora, Espainiako parlamentuak Berdintasun Legea onartu zuen; horrek ere izaera sozialeko jokabideetan eragiten du lan-baldintzak hobetzeko, eta lana eta familiaren bateragarritasuna hobetzea ahalbidetzen du.

Plan Concilia sindikatuen eta patronalaren arteko negoziazio kolektiboan gidalerro lana egin nahi du, enpresa pribatuetako langileen hitzarmen kolektiboetan.

*Plan Concilia*ren bitartez, helburu estrategikoa da gizon eta emakumeen artean laneko eta familiako arduren harmonizazioa sustatzea. Eta, helburu horretarako, Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan ohikoak diren babes sozialeko neurriak ezartzen ditu. Legegintza erreforma horien hasiera Nazioarteko Eskubide Sozialak, Lanaren Nazioarteko Erakundearen ekimenen bitartez batik bat, zein Lanaren Eskubide Komunitarioak proposatutako arautze garrantzitsuenak jasotzean datza.

Bateragarri egiteko mekanismoek kontuan hartu behar dute, halaber, familiaren inguruko egungo kontzeptua, eskema tradizionaletik eredu irekiago batera igaro baita, eta horrek, egun, hainbat osaeratako familia-nukleo ezberdinak egotea eragin baitu. Era berean, teknologia berrien sarreraren ondorioz, lan-harremanetako segurtasun ezaren ondorioz, lan-inguruneen kultur aniztasunaren ondorioz eta beste hainbat faktoreren ondorioz, lan-merkatuan izandako aldaketak ere kontuan hartu behar dira.



Enpresen jokabideek paper garrantzitsua jokatzen dute lanaren eta norberaren ingurunearen arteko batergarritasunean. Botere publikoek agindutako araudietan jasotako arau askok enpresen laguntza behar dute abian jartzeko. Nabarmendu behar da enpresa askok aurrea hartu diotela araudiari berari, eta langileei euren bizitza profesionala eta bizitza pribatuaren arteko oreka ahalbidetzen dieten neurriak eta irtenbideak eskaintzen dizkietela.

Arlo honetako politika ugariak emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzean oinarritzen dira, etxeari zein lanari dagokionez, baita adin txikikoen eta mendeko pertsonen zaintza berezkoa duten eskubide gisa kontuan hartzean eta jendarte osoaren eta Estatuaren ardura kolektibotzat jotzean ere. Helburua da familia eta lanaren arteko gatazkarik izango ez duen giro soziala sortzea.



2. EUROPAKO MARKOAREN TESTUINGURUAN JARTZEA

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen aurrera egitea Europar Batasuneko erakunde ezberdinen etengabeko kezka da eta, zentzu horretan, gero eta presentzia handiagoa dauka familia eta lanaren gaiak, lan-eskakizunak eta familiako arduren arteko oreka hobea lortzea bilatuta.

Europako testuinguruan, Kontseiluaren ebazpena eta lan eta gizarte gaietako ministroena daude, 2000ko ekainaren 6an Kontseiluan bilduta, lanean eta familia-bizitzan gizon eta emakumeek parte-hartze orekatua izateari dagokiona [C 128 Aldizkari Ofiziala, 2000/7/31koa]. Ebazpen hori Lisboako Europako Kontseiluan kokatzen da (2000ko martxoak 3 eta 4), aukera berdintasunaren alderdi guztiak hobetzearen garrantzia onartu zuena, baita lana eta familia bateragarri egitea ahalbidetzen dutenak ere.

Horretan, Estatu kideek estrategia global eta integratuak egitera anima daitezten sustatzen da, honakoak hartuta kontuan:

- gizon langileei aitatasun-baimenerako eskubidea onartzeko aukera —lan-arloko eskubideak gordez—, eta familian nabarmen laguntzea ahalbidetuko dieten eskubideak;
- seme-alabei, adinekoei, minusbaliatuei edota eurekiko mendekotasuna duten pertsoneri eman beharreko zaintzak langileen artean —gizon eta emakume— modu orekatuan banatzea erraztuko duten neurriak indartzea;
- familien sostengurako zerbitzuak sustatzen dituzten neurriak indartzea eta, bereziki, haurren zaintzarako egiturak hobetzea;
- kasuan kasu, kide bakarreko familiei berariazko babesa ematea;
- laneko eta eskolako ordutegiak (eskola-programen antolaketa) bateratzeko aukera aztertzea;
- aukera berdintasunaren sustapenarekin konpromiso aktiboa duten gobernuz kanpoko erakundeei pizgarriak eta sostengu-neurriak aplikatzea;
- aldizka, informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak pentsatu, egin eta sustatzea, oro har jendarteari zein talde zehatzei zuzenduta;



- enpresak adoretzea, enpresa txiki eta ertainak batik bat, euren langileen familia-bizitza kontuan hartuko duten kudeaketa-jarduerak egin eta abia ditzaten, neurri handiagoan.

Bestalde, enplegatzaile diren aldetik, erakundeak eta **Europar Batasuneko organoak** gonbidatu egiten dira gizon eta emakumeen lanbide-sustapen orekatua errazteko neurriak har ditzaten, neurri on emaitzak aldi berean behin ebalua ditzaten eta emaitzak argitaratu eman ditzaten.

Era berean, gizon eta emakumeen arteko berdintasun-arloko [estrategia marko komunitarioaren](#) ondorioak kontuan hartzeko gonbidapena helarazi zaio Batzordeari. Ekimen komunitarioko programen markoan ere, lan-jardueran gizon eta emakumeen arteko parte-hartze orekatua praktikara eramanez ahal izateko informazio, sentisibilizazio, ikerketaren sustapena eta ekintza pilotuak abiatzeko ahaleginak egiteko eskatu zaio. Bestalde, gizon eta emakumeen arteko aukera [berdintasunaren gaineko 5. programan](#) ere Ebazpena kontuan hartzerako adoretu da Batzordea, bereziki, gizon eta emakumeen arteko familia-arduren berdintasuna nabarmenduz programako helburu estrategikoen atalean, eta lan-jardunean zein familia-bizitzan gizon eta emakumeen parte-hartze orekatuaren helburua sustatzen duten neurriak indartuz.

Nazio zein Europa mailan, enplegatzaile publiko zein pribatuei, baita langileei eta gizarte-solaskideei ere, lan-jardunean eta familia-bizitzan gizon eta emakumeen arteko parte-hartze orekatua bermatzeko ahaleginak bikoizteko deia egiten zaie, bereziki lanaldiaren antolaketaren eta soldata bereizketa sortzen duten baldintzak ezabatzearen bitartez.

Familia eta lana bateragarri egitea izan da lehentasunezko gaia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko ekintza komunitarioko bosgarren programaren baitan sustatutako proposamenen deialdian.

Familia eta lana bateragarri egiteko neurrien garapen handiagoa Europako lan-estrategiaren ildo zuzentzaileen zati da, baita jendartereatzearen sustapenerako Europako prozesuaren helburu berdinean ere (pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka).

Bestalde, **bateragarritasunaren testuinguruan kontuan izan behar da Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialari eta Eskualdeen Batzordeari 2008ko urriaren 3an helarazitako Batzordearen Jakinarazpena, "Oreka hobea lan-bizitzan: lan-bizitza, familia-bizitza eta bizitza pribatuaren bateragarritasunari laguntza handiagoa" izenburua zuena [COM(2008) 635- Aldizkari Ofizialean argitaratu gabea].**



Jakinarazpen honek herritarrei euren lan-jarduera eta familia-bizitzaren arteko oreka aurkitzen laguntzeko nazio zein erkidego mailan hartutako neurri eta politikak aztertzen ditu. “Bateragarritasun sorta”ko neurriak aurkezten ditu.

Jakina, Europako herritarrek euren bizitzetako bi alderdiok bateragarri egin ahal izateak hazkundera eta lana, jendarteratzea eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten Europako estrategietan eragin dezake. Gainera, bateragarri egite horrek jaiotze-tasan ere positiboki eragin dezake.

1986an eta 1992an Batzordeak legezko bi proposamen aurkeztu zituen, eta horiekin gizarte-agenda berrituaren helburuak bete nahi zituen. Zehazki, familia-baimenei (hala nola amatasunagatiko baimena, 92/87CEE Zuzentaraua) eta langile autonomoen eta euren bikotekide laguntzaileen tratu-berdintasunari (86/613/CEE Zuzentaraua) dagozkien xedapenen berrikusketak ziren. Bestalde, “bateragarritasun sortak” kide diren estatuek hauren zaintzako helburuen betetzeari buruzko txostena ere jasotzen du.

Gainera, Batzordeak esperientzia-trukea eta jardunbide egokiak sustatu behar ditu alor horietan, baita erkidego mailako estatistikak egitea ere. Kohesio-politikaren eta, batik bat, Europako Funts Sozialaren kofinantzaketa-baliabidea sustatzen du.

Testuinguru horretan, Bizi- eta Lan-Baldintzen Hobekuntzarako Europako Fundazioak lan-ordutegiari eta lana eta familia bateragarri egiteari buruzko inkesta zabala egin zuen 2004ko udazkenaren eta 2005eko udaberriaren artean, Europako 21.000 lanpostu baino gehiagotan. Inkesta Europar Batasuneko kide diren hamabost Estatu “zaharren” artean egin zen (UE15), baita kide berri diren beste seiren artean ere: Txekiar Errepublika, Zipre, Letonia, Hungaria, Polonia eta Eslovenia. Langileen zuzendariak elkarrizketatu zituzten eta, aukera izan zenean, baita langileen ordezkariak ere. Hainbat gairen ingurukoak izan ziren galderak: lanaldi malguari buruzko akordioak eta lanorduen zenbaketa, lanaldi partzialak, aparteko orduak eta salbuespenezko lan-ordutegia, gurasotasun-baimena eta iraupen luzeko bestelako baimenak, aldez aurreko erretiroa eta aldez aurreko erretiro mailakaturia, baita familia eta lana bateragarri egiten laguntzen duten berariazko politikak ere.

Europako Fundazioaren ondorio nabarmenenak, familia eta lana bateragarri egiteari dagozkionak, honakoak dira:

- 10 langile edo gehiagoko Europako enpresen ia erdiek (%48) dute ezarrita ordutegi malgua.



- Lan-ordutegian nolabaiteko malgutasuna aplikatzen duten enpresen ehuneko handiagoa da zerbitzuen sektorean (%50) sektore industrialean baino (%43).
- Lan-ordutegi malgua ezartzeko enpresetako zuzendaritzek erabilitako bi arrazoi nagusiak izan ziren “langileei lana eta familia-bizitza (edo pertsonala) hobeto bateratzeko aukera ematea” (%68) eta “lantokiko lan -zama eta lan-ordutegia hobeto egokitzea” (%47).
- Zuzendaritzek zein langileen ordezkariak onartu egiten dute lan-ordutegi malgua ezarrita lortutako lorpenik handiena langilearen asebetetzea dela, eta, ondoren, lan-ordutegia hobeto egokitzen zaiola lan-zamari.
- Elkarrizketaturiko enpresen erdian (%51), gutxienez langile batek baliatu zuen gurasotasun-baimena, inkesta egin aurretiko hiru urteetan.
- Gurasotasun-baimeneko hurbileko kasu bat zeukaten lantokien %30en aipatu zuten baimen hori baliatu zutenen artean gutxienez bat gizonezkoa zela.
- Elkarrizketaturiko enpresa guztien %22k lanera itzultzeko trebakuntza-programak dituzte baimen luzeen ondoren itzultzen diren langileentzat.

Lan- eta Bizi-Baldintzak Hobetzeko Europako Fundazio honek berak honakoa nabarmendu zuen 2009ko txosten batean:

EB25eko gizon eta emakumeen %10ek astean hainbat aldiz zailtasunak dituzte familia-ardurak betetzeko, lanean ematen duten denbora luzea dela eta. 2004an batu ziren 10 estatu kide berrietan, kopuru hori %15eraino igotzen da gizonen artean, eta %14raino emakumeen artean.

Europako hegoaldean (Grezia, Italia, Espainia eta Portugal), lana eta familia bateragarri egiteko zailtasunak dituztela diotenak emakumeak dira gizonezkoak baino gehiago (emakumeen %17 eta gizonezkoen %11), nahiz eta lau herrialde horietan soldatapeko lana duten emakume gutxiago egon, EB15eko gainerako herrialdeetan baino. Ezberdintasun horren arrazoa izan daiteke Europako hegoaldeko herrialde horietako ongizate-sistema familia barruko zaintzan dagoela oinarrituta, eta hori emakumearen esku egoten dela, oro har.

Etxeko zein laneko ardurak ez dira berdintasun irizpideen arabera banatzen gizon eta emakumeen artean. 2003an, gizonezkoen enplegu-tasa %71koa zen EB25en, eta emakumezkoena, aldiz, %55ekoa. 2003ko populazio aktiboaren inkestaren arabera, gizonezkoek soldatapeko lan gehiago egiten dute emakumezkoek baino: EB25eko gizonek, batez beste,



emakumezkoek baino %17 gehiago egiten dute lan soldatapeko lanetan (beharbada, emakume gehiago dagoelako aldi baterako lanarekin edota soldatapeko lanik gabe).

Hala ere, emakumeek egiten dute soldatapekoa ez den lan gehiena, hala nola etxeko lanak eta seme-alaben zaintza. Adibidez, EB25eko emakumeek denboraren %50 gehiago ematen dute gizonek baino etxeko txikienak zaintzen.

Europa osoan, emakumeek gizonek baino etxeko lan gehiago egiten dituzte. EB25en, emakumeen %80k egiten dituzte etxeko lanak egunero, eta gizonezkoen %40k.

Sarritan gatazka sortu ohi duten laneko eta familiako eskaerak bateragarri egiteko neurriak hartzeak hainbat onura ekar ditzake. Neurri horiek honakoak eragin ditzakete:

- _ emakumeek lan-merkatuan parte hartzeko kuotak areagotzeko auziari irtenbidea ematea;
- _ Europako hiritarren bizi-kalitatea eta lan- eta bizi-baldintzak hobetzea;
- _ Europako hiritarren zahartzeak gizarte-segurantza sisteman duen eragina leuntzea;
- _ gizarte-bazterkeria saihesten laguntzea, bereziki egoera ahuleko guneetan.

Europako enpresa-ehunduraren gehiengoa hartzen duten enpresa txiki eta ertainak (ETE) herabe izan ohi dira lana eta familia bateragarri egiteko neurriak aplikatzeko, uste baitute garestiegiak direla, eta zailtasunak izaten baitituzte horiek eskala txikian aplikatzeko. Hala ere, badirudi neurri horiek abantaila ekonomikoak ekar diezazkiekeela neurri handiagoko enpresei, behintzat: egindako ikerketen arabera, lana eta familia bateragarri egiteko neurrietan inbertitu duten enpresek 16€ aurrez ditzakete inbertitutako euro bakoitzeko.

Lana eta familia bateragarri egiteko neurriek nabarmen murriz dezakete gaixotasunagatiko absentismoa, eta produktibitatea eta langileen iraunkortasun-tasak hobetu.

Lanaldi partziala oso sarritan erabiltzen dute beren lan eta familia-bizitzaren arteko oreka hobea izan nahi duten langileek; lan-ordutegiari buruzko enpresarien inkestaren arabera, lanaldi partzialarekin lan egiten duten pertsonen artean, amak izaten dira aipatuenak. Lanaren eta familiaren bateragarritasun hobea lortze aldera, lanaldi partziala izatea erraztu beharko litzateke modu orokorragoan eta antolaketaren maila guztietan. Horrek lanaldi partzialeko langileen kalitatea eta profila indartzea dakar. Lanaldi partziala lanpostu gehiagotan eta maila handiagokoetan sustatu beharko litzateke.

Dena den, lanaldi partzialeko lan-pilaketa egoteak kategoria baxuagoko enpleguetan eta oinarrian femeninoak diren enplegu-sektoreetan, emakumeek lana eta familia orekatzeko moduak bilatzen jarraitzeko joera izatea eragingo du (oraintxe bertan gertatzen den bezala, bizi-kalitateari buruzko Europako inkestaren arabera), eta aukera berdintasuneko programa komunitarioa betetzea oztopatuko du. Lanaldi partzialeko enplegu baterako aldaketa egiteko gaitasuna izateak, etxeko ardurek presio handia dakartenean, langile multzo handi bati ekar diezaioke onura. Gaur egun, lanaldi osoko lan batetik lanaldi partzialeko lan batera aldatzea oso zail gertatzen zaie aktibo dauden langile askori; oso onuragarria izango litzateke lanpostuak malguagoak izatea eta halako aldi baterako trantsizioak ahalbidetzea. Modu horretan, gizonen arteko lanaldi partziala ere sustatuko litzateke, eta etxeko lanetan laguntzeko aukerak handitu egingo lirateke. Aldi berean, gizonezkoen asebetetze subjektiboa ere sustatuko litzateke, euren lan eta familia-bizitzaren bateragarritasunari dagokionez. Herbeheretan lanaldi partzialeko hainbat modalitate erabili izan dira emakumeen arteko soldatapeko lanerako trantsizio bereziki azkarra sustatze aldera.

Lanaldi partzialeko lana sustatzeak gizarte-segurantzari eta erretiroari eragiten dieten gaiak kontuan hartzea garrantzitsua da: zenbait herrialdeetan, ordu gutxi lan egiten duten edo kopuru jakin batetik beherako soldata irabazten duten pertsonak ez dute gizarte-segurantzarako sarbiderik (edota sarbide mugatua dute). Auzi horiei heldu egin beharko zaie, pertsonen familia-bizitza gehiago kontuan hartuko duen lan-antolaketarako neurriekin batera.

Egun, alde handiak daude kide diren estatuen artean haurren zaintzari eta libre egoteari dagokionez; areago, gurasoen lan-ordutegiaren malgutasuna gero eta handiagoa da, eta horrek haurren arretari dagokion malgutasuna eskatzen du, hala nola irekitzeko ordutegi zabalagoak, asteburuetan libre egotea eta oporretako zaintza. Haurren zaintzarako tresna lorgarri malgu eta kalitate onekoak ahalbidetzera bideratutako politika paneuroparra oso onuragarria izango litzateke Europako herritarrentzat, lan eta familia-bizitzaren eskaerak bateragarri egiteko helburuari begira. Ezaugarri hauetako politikak, zaintza haur helduenengana zabaltzeko beharra ere kontuan hartu beharko luke: Europako enplegu-ekimenak dauden bezalaxe, hala nola Bartzelonako helburuak, haur txikiaren zaintza-zerbitzuak handitzera bideratutakoak, ez dago eskola-adinean dauden haurrentzako berariazko politikarik.

Haurren arreta hobetzeko funtsezko beste alderdietako bat politika hori lana eta familia bateragarri egiteko bestelako enplegu-politiken sorta zabalagoan txertatzean datza, hala nola gurasotasun-baimenak eta lan-eskema malguak. Hala ere, gutxi dira halako politikak arrakastaz ezarri dituzten EBko gobernuak.



Europako biztanleria zahartzeak esan nahi du senide zaharren zaintza gai kezkarria bihurtzen ari dela Europan aktibo dauden pertsonentzat, eta haurren zaintzaren auzia bezain presazkoa izan daiteke. Dena den, egun, EBk ez du aurreikusten inolako laguntzarik adineko senideak zaintzen ari diren pertsonentzat eta, nazio mailan, ez dago adinekoen zaintzarako baimenik aurreikusten duen Europako herrialderik (Suedia eta Herbehereak izan ezik).

Mendeko pertsonen zaintzarako baimenekin batera, familiako zaintza beharrak osatzeko eta ordeztzeko langile trebatuak gehitu beharko liriateke.

Gurasotasun-baimenak sexuen arteko berdintasunean laguntzeko ahalmena dauka, gizon eta emakumeak haurren zaintzaz arduratzea baitakar. Dena den, langile batek lanean aurrera egitea ere eragotz dezake: emakumeak badira nagusiki gurasotasun-baimena eskatzen dutenak, horrek gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak indar ditzake. Baimen horren beste arazoetako bat da, gaur egun aplikatzen den moduan, iraupen, malgutasun eta ordainketa aldetik aldatu egiten dela: kide diren hainbat Estatutan ez da ordaintzen, beste batzuetan, ordea, bai, baina ordaindutako kopurua aldakorra da eta, ikuspegi ekonomikotik, guraso askok ezin diote aurre egin ordaindu gabeko baimen bati.

Baimen bat baliatzea oztopo izan daiteke lan-ibilbidean aktibo dauden hainbat gurasorentzat, baina itzultzeko orduan lanpostu berbera bermatuko balitz, guraso gehiago animatuko liriateke euren baimenak baliatzera.

Suedia eta Norvegiako esperientziek gurasotasun-baimenaren erabilera-tasari dagokionez, adierazten dute, guraso bakoitzarentzat baimenaren zati bat gordez gero, pizgarria dela baimena gizonetzkoen artean gehiago erabiltzeko. Gurasotasun-baimena baliatzeko erabakia hartzen duten aita gehiago dira jasotzen duten ordainketa euren soldata arruntaren mailara hurbiltzen denean eta amari helaraz ezin dakizkiokeen ordu-kopuru zehatza dagoenean.

Hala ere, gizonetzko langileek %30ean baino ez dute baliatu gurasotasun-baimena Europako 21 herrialdetan. Kopuruak nabarmen aldatzen dira: Suediako lantokien %69n erabili dute gizonetzkoek gurasotasun-baimena, baina kopuru hori %2ra jaisten da Zipreri dagokionez.

Gurasotasun-baimena ordaindua bada eta zenbatekoa soldataren antzekoa bada, gertagarriagoa da gizonetzkoek baimena erabiltzea. Gertagarriagoa da gurasotasun-baimena erabiltzea, halaber, euren zatia ez badakioke amari helaraz. Emakumeek, oro har, gizonetzkoek baino gutxiago

irabazten dutenez, familiek diru-sarreraren galera txikiagoa pairatzen dute emakumeak hartzen duenean baimena.

Nazio mailako akordioak proposatu dira hainbat herrialdetan, hala nola Herbehereetan, etorkizunari begira langileei euren aisialdia finantzatzen laguntzeko sarrerak gordailu batean ipintzea (zenbateko ekonomiko bat gordailu batean ipintzea) ahalbidetuko duten zergazko neurriak ezartzeko: aisialdi hori familia-arretako betebeharrak asetzeko erabil daiteke. Neurri horren aplikazioa eta aukerak aztertu egin beharko dira. (Neurri horren abantaila da ordaindutako lanetik kanpo igarotako denbora finantzatzeko moduari hein batean heltzen diola).

Ondorio nagusiak

_ **Lan-ordutegi luzeak zaildu egiten du familia eta lana bateragarri egiteko aukera.** EB15eko hiritarrentzat zaila da euren betebeharrak familiarrei aurre egitea, lanari eskaintzen dioten denbora luzea dela eta, baina arazoa larriagotu egiten da kide berri diren estatuetan eta hautagai direnetan, bertan lanaldiak are luzeagoak direlako. Gainera, langile horiei zailago gertatze zaie lana eta familia bateragarri egitea.

_ **Aide nabarmenak daude gizon eta emakumeen artean.** Gizonezkoek lan-aste luzeagoak dituzte euren soldatapeko lanetan, baina emakumeek ordu gehiagoz egiten dute lan, euren soldatapeko lana egiteaz gain, euren gain izaten dutelako etxeko lanen zatirik handiena ere.

_ **Egoera ahuleko taldeek presio gehigarriak jasaten dituzte.** Soldatapeko lanari eta etxeko betebeharrari erantzuteak dakarren gatazkaren irtenbidea zailagoa da egoera ahulean dauden taldeen kasuan, esaterako, guraso bakarreko familietan, malabarismoak egin behar izaten baitituzte lanari eta zaintza familiarrei laguntzarik gabe aurre egiteko. Desabantaila egoera horrek soldata txikiagoak edo lan-baldintza okerragoak izan ditzake ondorio. Era berean, emakumeek, talde moduan, diru-sarrera txikiagoak izaten dituzte bizitza osoan zehar, eta jubilatze aukera okerragoak dituzte, hein batean lanaldi partzialak izaten baitituzte lana eta familia-bizitzaren eskaerak bateragarri egin ahal izateko.

_ **Langileen lana eta familia bateragarri egiteak onurak ekar diezazkieke enpresei.** Langileei euren lana eta familia bateratzen laguntzeko lan malguko sistema antolatua ezartzeak gaixotasunagatikoko baja-kopurua jaits dezake, eta produktibitatea eta iraunkortasuna areagotu.

_ **Finantza-kontuek eta gizarte-segurantzari dagozkionek lan-ordutegiaren malgutasuna oztopatzen dute.** Lanaldi partzialeko lana eta lan-denboraren zenbaketa epe luzera dira lana eta familia bateragarri egiteko erabiltzen diren neurrietako batzuk. Baina egungo zerga-erregimenak, pentsio eta gizarte-segurantza erregimenak ez dira egokitu oraindik lan-antolaketa modu horiei lekua egiteko moduan.

— **Laguntza-lanen antolaketa funtsezko faktorea da lana eta familia bateragarri egiteko.**

Europako biztanleak zahartzen diren heinean, populazio aktiboa haurren eta adinekoen zaintzaren ardura hartzera behartuta dago gero eta gehiago. Beste behin ere, emakumeek gizonek baino zama astunagoa dute. Mendekoen zaintzarako baimenak, gurasotasun-baimenak bezalaxe, laguntza handia eman dezake horretan; hala ere, ardura hori euren gain hartzen duten gizonen kopuru txikiak aukera berdintasunari buruzko hainbat auzi aurkezten dizkigu.

2006/547CE Zuzentaraua onartuz, 75/117/CEE, 76/207/CEE, 86/378/CEE, 96/977CE, 97/80/CE eta 2002/73/CE Zuzentaruak batzen dituenak, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren eta tratu berdintasunaren printzipioak aplikatzea bermatu nahi da lanaren eta zereginen esparruan (enplegurako sarbidea, sustapena eta trebakuntza barne; lan-baldintzak, ordainketa barne; gizarte-segurantzako lan-erregimenak).

2008ko urrian, Batzordeak neurri-sorta bat agindu zuen lana eta familia bateragarri egiteko, aldez aurretik bazeuden bi zuzentarauren (92/85/CEE eta 86/613/CEE) berrikusketa egiteko bi proposamen legegile barne.

92/85 aldatzea zen asmoa, baimenak luzatzeko, malgutasun handiagoa eskaintzeko eta baimena bitartean ordainketa hobetzeko, babes handiagoa bilatuta eta bateragarritasunari buruzko xedapenak hobetuta.

Honakoak dira lantzen dituen alderdi nagusiak:

- Amatasun-baimenaren iraupena luzatzea: egungo 14 asteetatik 18ra.
- Ordainketa osoaren printzipioa 18 asteotan zehar; kide diren Estatuak muga jartzeko aukera izango dute, baina ez litzateke gaixotasunagatikoko baja baino txikiagoa izango.
- Amatasun-baimena eta gero itzultzen diren emakumeek lan-ordutegi malgua eskatzeko eskubidea. Enpresariak eskaera horiek aztertu beharko ditu, baina ez dago horiek onartzera behartuta.
- Emakumeei baimena noiz hasi erabakitzeak aukera emango dien malgutasun handiagoa.

86/613/CEE Zuzentaraua berrikusteko proposamen legegileari dagokionez, norberaren kontura lan egiten duten pertsonen eta euren bikotekideei gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasunaren printzipioa aplikatzeari dagokion lege marko komunitarioa eguneratzea du helburu. Proposamen horrek bertan behera utziko du 86/613/CEE Zuzentaraua, eta aplikagarria izango da 2006/54/CE, 2004/113/ce eta 79/7/CEE Zuzentaruetan jasota ez dauden

alderdietan, norberaren konturako jarduera egin edo berau egiten laguntzen duten emakume eta gizonen arteko tratu berdintasuneko printzipioa modu eraginkorragoan aplikatzeko.

Azkenik, Europako gizarte-solaskideek (Business Europe, UEAPME, CEEP eta CES) Gurasotasun-Baimenari buruzko Akordio Marko berrikusia adostu zuten 2009ko ekainean. Egungo gurasotasun-baimena hiru hilabetetik laura igo zuten kide bakoitzeko, eta langile guztiei aplikatuko litzaieke, edozein izanda ere euren kontratu mota. Europako gizarte-solaskideek eskaera bateratua egin diote Batzordeari, Kontseiluaren Zuzentzari proposamenaren bitartez aplika dezan.

2006an, Europako Batzordeak 2006-2010 epea hartzen zuen Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Lan-Plana onartu zuen. Lan-plan honek lehentasunezko sei ekintza-esparru komunitario marraztu zituen sexuen arteko berdintasuna jorrazteko 2006-2010 denbora epean: independentzia ekonomiko bera emakume eta gizonentzat, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egitea, ordezkapen bera erabakiak hartzerakoan, genero-indarkeria forma guztien erauzketa, estereotipo sexisten ezabaketa eta berdintasunaren sustapena kanpo- eta garapen-politikan. Esparru bakoitzerako, lehentasunezko xede eta ekintzak identifikatzen ditu.

Emakumea eta ekonomiaren gaiak kezka bereziko arloa osatzen du *Beijingeko Ekintza Plataforman*¹, markatu ziren sei helburu estrategikoen azkena “Lanari eta familiari dagokienez, emakume eta gizonen erantzukizunen harmonizazioa sustatzea” da.

Helburu estrategiko honekin lotuta, EBk hamazortzi adierazle identifikatu ditu ekonomiaren arloan emakumearen sartzeari ebaluatzeko. 2000. urtean, Batzordeak bederatzi adierazle onartu zituen, zazpita murriztuta 2008ko berrazterketa ostean. Batzordeak 2001ean onarturiko bederatzi adierazleetatik, sexuen arteko soldata-aldea baino ez da aurkezten, xehatze desberdinekin (lan- eta langabezia-tasak):

- **1. adierazlea.** Guraso-baimena duten gizon eta emakumeen proportzioa (soldatapekoa ala ez), 96/34/CE Zuzentzariaren arabera, Guraso-baimenari buruzko akordio markoari dagokiona, gizarte-solaskideek eginga, eragindako guztirako gurasoei dagokienez.
- **2. adierazlea.** Guraso-baimena duten soldatapeko gizon eta emakumeen banaketa, guztirako guraso-baimenei dagokienez.

¹ 1995ean Beijingen egindako Emakumeari buruzko Munduko Laugarren Konferentziak erabakitako dokumentu ofiziala Berdintasunerako, garapenerako eta bakerako Adierazpena eta Ekintza Plataforma (PA) deitzen da.



- **3. adierazlea.** Egitura kolektiboetan (familia ez bestelakoetan) zaindutako haurren proportzioa, adin-tarte bereko guztirako hurrei dagokienez: eskola-erregimen osagarri ez derrigorrezkoan sartu aurretik (egunean zehar); derrigorrezko eskola-erregimenean edo baliokidean (eskola-ordutegi osagarritik kanpo) eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan (eskola-ordutegitik kanpo).
- **4. adierazlea.** Politika global edo integratuak, eta, bereziki, enplegu-politikak, lanaren eta familiaren arteko oreka sustatzera bideratuak, bai gizonarena, bai emakumearena (barne, adibidez, haurtzaindegien, guraso-baimenen eta lan-ordutegi malgueli buruzko xedapenen zerrenda bat, hala nola enpresek beren langileei ematen dizkieten zerbitzuen eta udal, postetxe, haurtzaindegi eta dendak bezalako zerbitzu publikoen irekitze-ordutegiena).
- **5. adierazlea.** Mendeko gizon eta emakumeen proportzioa (eguneroko gauzarik ohikoenetan beren kabuz molda ezin daitezkeenak, 75 urtetik gorakoak: erakunde espezializatuetan bizi direnak; etxean laguntza jasotzen dutenak (familiak emandakoa ez bestelakoa) eta familiaren kargura daudenak, 75 urtetik gorako gizon eta emakume guztiei dagokienez.
- **6. adierazlea.** Langile bakoitzaren eguneroko guztirako denbora “behartua”, bikotekidearekin bizi dena eta bere kargu 12 urtetik beherako haur bat edo hainbat dituen, edo mendeko pertsona bat: ordaindutako lan-denbora; garraio-denbora; oinarrizko etxeko lanetarako denbora; beste denbora bat familiari eskainia (haurren zaintza eta heziketa eta mendeko helduena).
- **7. adierazlea.** Langile bakoitzaren eguneroko guztirako denbora “behartua”, bakarrik bizi dena eta bere kargu 12 urtetik beherako haur bat edo hainbat dituen, edo mendeko pertsona bat: ordaindutako lan-denbora; garraio-denbora; oinarrizko etxeko lanetarako denbora; beste denbora bat familiari eskainia (haurren zaintza eta heziketa eta mendeko helduena).
- **8. adierazlea.** Enplegu-tasak (emakumeak eta gizonak).
- **9. adierazlea.** Langabezia-tasak (emakumeak eta gizonak).
- **10. adierazlea.** Orduko soldata gordinaren aldea gizon eta emakumeen artean, sektoreen arabera (publikoa edo pribatua) xehakatuta, adin-tarteen arabera (16-24, 25-54 eta 55-64) eta hezkuntza-mailaren eta hileko soldataren arabera.

Europar Batasuneko Batzordearen presidentetza suediarren txostenak (2009) Estatu kideetan izandako garapena aztertu zuen, arlo honi eragiten dioten adierazle desberdinei dagokienez:

“1. adierazlea: 96/34/CE Zuzentarauaren arabera, banako guraso-baimen eskubidea langileei, gizon eta emakumeei, ematen zaie seme-alaba bat adoptatu edo jaiotzeagatik, gutxienez hiru hilabetez zaindu ahal izateko adin jakin bat izan arte, zortzi urte bete arte ere izan daitekeena, eta Estatu kideek edota gizarte-solaskideek definitu beharko dutena.

Aukera eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, aurreikusitako guraso-baimena, printzipioz, modu besterenezinean eman behar dela uste da.

Guraso-baimena eskuratzeko baldintzak eta modalitateak legez edota hitzarmen kolektiboetan definituko dira Estatu kideetan, Akordio honetako gutxieneko xedapenekin bat etorrira. Estatu kideek edota gizarte-solaskideek honakoak egin ahal izango dituzte zehazki:

- a) guraso-baimena lanaldi osoz, lanaldi partzialez, zatituta edo denbora-kreditu forman ematen den erabaki;
- b) guraso-baimen eskubidea lan-denboraldi edota antzinatasun baten mende jarri, ezingo dena urtebete baino luzeagoa izan;
- c) guraso-baimena eskuratzeko baldintzak eta modalitateak adopzioaren inguruabar bereziei doitu;
- d) guraso-baimen eskubidea egikaritzen duen langileak enpresariari eman beharreko aurretiko abisu-aldiak ezarri, baimen-eparearen hasiera eta bukaera zehaztuta;
- e) legeriaren, hitzarmen kolektiboen eta usu nazionalen arabera aurretik kontsultatuta, enpresariak zein egoeratan ahalko duen guraso-baimena berandutu definitu, arrazoituta, arrazoiok enpresaren funtzionamenduarekin lotuak egon beharko dira (adibidez, lana urtaro erakoa bada, aurretiko abisuaren helburu den aldian zehar ezin bada ordezkorik aurkitu, langileen proportzio esanguratsu batek aldi berean eskatzen badu guraso-baimena, funtzio jakin batek garrantzi estrategikoa badu). Xedapen honen aplikaziotik sorturiko edozein zailtasun legeriaren, hitzarmen kolektiboen eta usu nazionalen arabera konpondu beharko da;
- e) enpresa txikien funtzionamendu eta antolaketari dagozkion beharrei erantzuteko, akordio partikularrak baimendu.

Estatu batzuetan, amatasun-baimena guraso-baimenaren baitan dago (Suedia, Portugal), eta aitarekin parteka daiteke (Espainia).

EBeko egoeraren azterketa batek adierazten du aniztasun zabala dagoela guraso-baimenaren aplikazioan, iraupenari zein soldatari dagokienez. Guraso-baimenen iraupena hamahiru edo hamalau asteetatik (gutxienekoa), Erresuma Batuan eta Irlandan, hiru urtera arte doa, bederatzi estatu Kidetan, gehienak duela gutxi atxikiak EBri (Txekiar Errepublika, Alemania, Espainia, Frantzia, Hungaria, Lituania, Letonia, Polonia eta Eslovakia). Ez da soldatapeko baimena zazpi

herrialdetan (nahiz eta batzuetan akordioak dauden guraso-baimenaren soldatari buruzko hitzarmen kolektiboetan), horien artean Espainia, Grezia, Irlanda, Holanda eta Erresuma Batuan, tipo baxuan ordainduta beste zazpitan (Austria, Belgika, Txekiar Errepublika, Frantzia, Italia Portugal eta Eslovakia), eta baimen osoan zehar edo horren zati definitu batean eta haurra jaio aurreko soldata bera ordainduta zortzi Estatu kidetan (Alemania, Danimarka, Estonia, Finlandia, Lituania, Luxenburgo, Letonia, Suedia eta Eslovenia). Ez dago datu eskuragarririk Belgika eta Errumaniaren kasuetan. Eurostatek argitaratu egin ditu amatasun- edo guraso-baimenak gozatzen dituzten langileei buruzko zenbait datu, baina ez daude herrialde guztienak. Zortzi urtetik beherako seme-alabak dituzten emakume langileen kasuan, Austriak dauka ehunekorik handiena, ia %20. Proporzioak %10 gainditzen du beste herrialde batzuetan, eta bostetan ez da %4ra heltzen. Zortzi urtetik beherako seme-alabak dituzten aita langileen proporzioak ez du %1 gainditzen inolako herrialdetan, eta kasu gehienetan %0koa da.

2. adierazlea: Egun, herrialde asko hainbat modutan ari dira sustatzen gizonak gozatzea guraso-baimena, hala ere, baimen horrek emakumezkoen nagusitasun argia aurkezten jarraitzen du, aplikatzen den sistema zein den alde batera utzita. Eskuragarri dauden datuak ez dira oso fidagarriak, nahiz eta atera daitekeen aurretiazko ondorio bat: guraso-baimenak guraso bien arteko banaketa orekatuagoa aurkezten duenean, amaren baimenak motzagoak direlako izaten da, ez aiten baimenen iraupen luzeagotik eratorritako berdintasunean aurrerapenik izan delako. Herrialde ugarian, gizonak badute aitatasun-baimena izateko eskubidea, jaiotza gertatzen den unean. Baimen hau ordaindua izan ohi da, eta amak amatasun-baimena gozatzen duen bitartean goza daiteke. Gurasoek egun hauek gozatzen dituztenean, ohikoa dirudiena, eta amatasun-baimena laburra izanez gero, guraso-baimenak amatasun-baimena luzeagoa denean baino banaketa paritarioagoa aurkezten du.

EU-SILC estatistiketatik eratorritako datuak ere badaude, zaintza gurasoengandik bakarrik jasotzen duten haurrei buruz, hau da, haiek zaintzearen arduradun nagusiak euren amak izaten dira, haurrak zaintzeko beste egitura profesionalik esku hartu barik, formalak edo bestelakoak. Honi dagokionez, alde handiak ikusten dira EBeko herrialdeen artean. Bost herrialdetan, zaintza gurasoengandik bakarrik jasotzen duten hiru urtetik beherako haurren kopurua %30 baino txikiagoa da, ehunekoak 30 eta 50 artean dago sei herrialdetan eta 50 eta 70 artean beste bostetan. Gainerako sei herrialdeetan, zaintza gurasoengandik bakarrik jasotzen duten haurren ehunekoak %70 baino handiagoa da. Litekeena da adin-tarte honetako haurren proporzioa, gurasoek bakarrik zaintzen dituztenena, nagusiki amatasun- edo guraso-baimenaren iraupenaren, soldataren eta haurrak zaintzeko zerbitzuen eskuragarritasunaren mende egotea. Iparraldeko herrialdeetan, haurrak zaintzeko zerbitzu profesionalen eskuragarritasun handia dago. Finlandian, non gurasoek guraso-baimena haurrak hiru urte bete arte goza dezaketen,

gurasoek bakarrik zaintzen dituzten haurren ehuneko handia dago (%70); Suedian, guraso-baimena hamasei astekoa da eta haurren erdiak baino gehiago (%52) gurasoen zaintzaren mende baino ez daude; eta Danimarkan, non baimena hamar hilabete eta erdikoa den, ehunekoa %26koa da.

Haur nagusiagoen kasuan ere -hiru urtetik derrigorrezko eskolatze adinera- alde handiak ikusten dira herrialdeen artean, gurasoek bakarrik zaintzen dituzten haurren ehunekoari dagokionez, %1etik Belgikan %46ra Polonian. Hamabi herrialdetan, ehunekoa %10 baino txikiagoa da, zazpitan %10 eta 20 artean dago, eta beste seitan %20 baino handiagoa da.

3. adierazlea: EBeko estatistika harmonizatuak daude haurrak zaintzeko egituren (profesionalak edo bestelakoak) eskuragarritasunaren ingurukoak errenta eta bizi-baldintzei buruzko estatistika komunitarioen testuinguruan (SILC).

2002ko Bartzelonako Goi-bileran haur-arretari buruzko helburuak finkatu ziren. 2010ean, estatu kideek ahalmena izan behar zuten haurrak zaintzeko zerbitzuak hiru urte eta derrigorrezko eskolatze adina zutenen arteko gutxienez %90i emateko, eta hiru urtetik beherako haurren %33ri gutxienez.

Haurrak zaintzeko zerbitzu eskuragarri, merke eta kalitate handikoen eskuragarritasuna funtsezkoa da guraso langileentzat. Zerbitzu mota hauen eskuragarritasuna EBean oso desberdina da. Datuek adierazten dute herrialde batzuek haurrak zaintzeko egitura ugari dituztela, eta beste batzuetan, ordea, egitura informalgoekin konpontzen direla, zaintzaile, familia, lagun edo auzokideekin, kasu. Zero eta bi urte bitarteko haurren kategorian, haurrak zaintzeko egitura profesionalen erabilera %73koa da Danimarkan, eta Polonian eta Txekiar Errepublikan %2koa. Datuek beste behin erakusten dute bederatzia Estatu Kidek lortu dutela Bartzelonako helburua, alegia, haurrak zaintzeko zerbitzuak hiru urtetik beherako haurren %33ri gutxienez ematea. Esparru honetako arazoetako bat da ez dela jakina zein puntutaraino diren haurrak zaintzeko egitura profesionalak guraso biek lan egiten duten egoera batekin bateragarriak. Esate baterako, Herbehereetan eta Erresuma Batuan egitura horiek gozaten dituzten haurren ehuneko handi batek astean hogeita hamar orduz baino gutxiagoz egiten dute, eta Danimarkan eta Portugalen haurren gehiengoak astean hogeita hamar ordu baino gehiago ematen ditu egitura profesional hauetan. Herrialde batzuetan, haurrak zaintzeko egitura profesionalak ez dira adin-tarte honetako haurrentzako bestelako konponbide batzuk bezain ohikoak. Egiturak, profesionalak zein beste izaera batekoak, erabiltzen dituzten haurren ehunekoak eta gurasoek bakarrik zaintzen dituzten haurren ehunekoak batuz gero, herrialde



batzuetan emaitzak %100 gainditzen du, eta horrek esan nahi du herrialde batzuetan gurasoek haurra zaintzeko metodo batera baino gehiagora jo behar dutela.

Haurrak zaintzeko egitura profesionalen eskuragarritasuna handitu egiten da adin handiagoko haurren artean. Hiru eta derrigorrezko eskolatzeko adina duten haurren artean, Belgika dago zerrenda buru, bertan haurren ia %100 egitura profesionalean izena emanda daude. Kontrako muturrean Polonia dago, %28rekin. Bai Euskadiko Autonomia Erkidegoan, bai Espainia osoan, non haur-hezkuntza borondatezkoa den (jaiotzetik 6 urtera arte), 3 eta 6 urte bitarteko haurren ia %100 dohainik eskolatuta dago. Espainiako Hezkuntza Ministerioaren "Programa Educa 3" hezkuntza-plaza berrien sorkuntza sustatzen ari da 3 urtetik beherako umeentzat, Euskadiko Autonomia Erkidegoan, 2008-2009 ikasturtean, 0 urtekoen eskolatzeko-kopurua %18koa zen, urtebetekoena %39,4koa eta 2 urtekoena %89,1koa.

Bartzelonako helburuen arabera, benetako estalduraren indizeak 2010ean gutxienez %90era heldu beharko luke. Estatu Kideen arteko zortzik betetzen dute helburua, eta bi lortzetik oso hurbil daude. Era berean, kontuan hartu behar da herrialde gehienetan eskolaurreko hezkuntzak ordutegi mugatuak dituela, beraz, ama eta aita langileek haurrak zaintzeko zerbitzu gehigarriak behar dituztela, eta horien eskuragarritasuna askoz ere murriztagoa izan daitekeela, haurrak batetik bestera ibiltzeko beharra dakarrena. Herrialde hauetako askotan, adin-tarte honetako haurren gehiengoak ere 30 ordu baino gutxiago ematen ditu egitura profesionalean; horrek esan nahi du euren amek ez dutela lanaldi osoz lan egiten.

Azpimarratu behar da adin-tarte honetako haurrak zaintzeko zerbitzuen eskuragarritasun handiaren arrazoia, neurri handi batean, eskolaurre-programa ofizialen txertaketa dela. Beste adin-tarte batean ere ikusten da guraso askok haurrak zaintzeko beste egitura batzuetara jo behar dutela, edo zerbitzu profesional eta ez-profesionalen arteko konbinaziora. Iparraldeko herrialdeetan, zerbitzu profesionalek -gurasoen zaintzarekin uztartuta- adin-tarte bien behar guztiak estaltzen dituzte; Eslovenian, Herbehereetan, Hungarian eta Zipren, berriz, gurasoek, neurri handi batean, beste konponbide batzuetara jotzen dute.

4. adierazlea. Politika global edo integratuak, eta, bereziki, enplegu-politikak, lana eta familiaren arteko oreka sustatzera bideratuak, bai gizonarena, bai emakumearena (barne, adibidez, haurtzaindegien, guraso-baimenen eta lan-ordutegi malgueli buruzko xedapenen zerrenda bat, hala nola enpresek beren langileei ematen dizkieten zerbitzuen eta udal, postetxe, haurtzaindegi eta dendak bezalako zerbitzu publikoen irekitze-ordutegi malguena).



5. adierazlea: Adierazle honek ez du EBeko herrialdeetarako datu harmonizatuen laguntzarik. Adin handiko mendeko pertsoneri ematen zaien laguntza. Daturik ez egoteak nabarmen jartzen du zaintza hauei dagozkien bitarteko instituzionalen urritasuna. Eskuragarri dauden datuek erakusten dute herrialde gehienetan apenas jotzen dela erakundeetara. Erakundeetan bizi diren mendekoen ehunekoa %1ekoa da Frantzian, %2koa Austrian, %4koa Erresuma Batuan, %5ekoa Herbehereetan eta %8koa Suedian. Espainian, egoitzetan bizi diren mendekoen ehunekoa %3,86koa dela kalkulatu da, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan, berriz, %3,71ekoa. Beste datu batzuek aditzera ematen dute Frantzian adin handiko mendekoen %96k beren familien laguntza jasotzen dutela, kopuru hori %95ekoa da Espainian (antzekoa EAEn, bertan erakundeek mendekoak etxean zaintzea aldarrikatzen dute), %87koa Italian, %83koa Alemanian eta %79koa Herbehereetan eta Suedian. Seme-alaben inplikazioa handiagoa izaten da guraso batek ezkontidea galdu badu.

Estatu Kide berrietako mendekoei buruzko ikerketa batek erakusten du hauek oraindik ez diotela aurre egin behar izan adin handiko mendeko pertsonen arazoari, ez Hamabosten Europako maila berean (Mette, 2006). Ikusten da mendeko pertsoneri emandako laguntzak kalitate handiagoa duela Malta eta Eslovenian, beste herrialde batzuetan baino. Estatu bi hauek iraupen luzeko laguntza eta biztanleko erizain gehiagoko instalazio-kopuru handiagoa dute. Polonia ere badirudi gainerako estatu Kide berriak baino egoera hobean dagoela, BPGren proportzio garrantzitsu bat adin handiko pertsoneri bideratzen zaie, eta ohe-kopuru handiagoa du iraupen luzeko laguntzarako. Hiru herrialde baltikoen eta gainerakoen arteko aldea da azkenek BPGren proportzio txikia zuzentzen dutela adin handiko mendeko pertsonen zaintzara, nahiz eta espero den datozen hamarkadotan herrialdeotako biztanleria zaharkituenen artean egotea.

6. adierazlea: Ez dago datu harmonizaturik denboraren erabilerari dagokionez EBeko Estatu kide guztientzat, inkestak ez baitira derrigorrezkoak erkidego mailan. Hala ere, badugu datu-base bat, denboraren erabilerari buruzko inkesta europar harmonizatuetatik aurrera egina (HETUS 1999 eta 2004 artean eginak, herrialdearen arabera), eta horri EBeko hamalau herrialdetako (Norvegiar gain) datu alderagarriak edo ia alderagarriak jasotzen dituen datu-base bat erantsi zaio. (Hala ere, datuak ez daude xehakaturik hamabi urte bitarteko haurrentzat, eta bi talde ezartzen dituzte: bata zero eta sei urte bitarteko umeentzat eta bestea zazpi eta hamazazpi urte bitartekoentzat. Herrialde desberdinetan amak baldintzatzen dituen «denbora konprometitua» (soldatapeko lan-denbora + etxeko lanei eskainitako denbora + garraio-denbora) bederatzi orduetik hamaika ordu eta hamabost minutura doa egunean. Denbora «konprometituko» proportziorik handiena Estatu Kide berri batzuetan eta Italian aurkitzen da. Denbora honi dagokionez gizon eta emakumeen arteko alderik handiena Estonian ikusten da, ia hiru ordura



helduta. Eskolaurrera joateko adinean dauden seme-alabak dituzten bikoteen artean, denbora konprometitua apur bat handiagoa da gizonen kasuan Alemanian, Espainian, Suedian, Bulgarian eta Frantzia. Herrialde Baltikoetan emakumeen denbora konprometitua luzeagoa izateko arrazoia da soldatapeko lanari eskainitako denbora luzeagoa dela, Italian ez bezala, bertan emakumeek denbora luzea eskaintzen baitiete etxeko lanei. Gizon eta emakumeek joan-etorriei eskaintzen dieten denbora ez da oso desberdina herrialde gehienetan, nahiz eta gizonek emakumeek baino denbora gehiago eskaini.

Adin handiagoko seme-alabak dituzten bikote langileen artean, emakumeek alde batera utzi ezinezko eginkizunetan ematen duten denbora bederatzi eta hamaika ordu eta hamabost minutu artekoa da. Maila honetan, emakumeen denbora konprometitua gizonena baino luzeagoa da ia herrialde guztietan. Sexuaren araberako aldean jarraibidea oso antzekoa da: denbora konprometitukoaldi luzeak emakumeentzat, seme-alaba txikiagoak dituzten familien kasuan dauden arrazoi berberengatik. Talde honen barruan seme-alabak dituzten emakumeek seme-alabak eskolaurreko adinean dituzten emakumeek baino denbora gutxiago eskaintzen diete etxeko lanei. Ordu-kopurua hiru ordu eta lau ordu eta erdi artean dago, eta seme-alabak eskolaurreko adinean dituzten emakumeek hiru ordu eta erdi eta sei ordu artean ematen dute lan berak egiten. Hala ere, sexuen araberako aldea ia berdina da maila bietan: ordubete pasatxotik hiru ordu baino gehiagora.

7. adierazlea: 6. adierazlerako datu berak erabiltzen dira, baina, guraso bakarreko familiako aiten kopurua horren txikia denez, lau herrialdek baino ez dituzte horiei buruzko datuak. Beraz, alderaketa egin da guraso bakarreko familiako ama langileek eskainitako denboraren eta ama langile ezkonduak edo bikotekidearekin bizi direnek eskainitako denboraren artean. Lehen kategoriaren baitako haurrek zero eta hamazazpi urtean dute, eta bigarrenekoek, zero eta sei edo zazpi eta hamazazpi urte artean, beraz, taldeak ez dira erabat alderagarriak.

Herrialde gehienetan, guraso bakarreko familiako amen guztirako denbora konprometitua ezkonduak edo bikotekidearekin bizi diren amena baino txikiagoa da, harrigarria eman dezakeena. Pentsa liteke guraso biak elkarrekin bizitzen diren kasuetan, elkarbanatu egingo liratekeela haurrekin loturiko lanak, baita soldatapeko lana ere, hala ere, gerta liteke baita gizon batek etxean etxeko lana ematea emakumeari eta ziurrenik denbora gutxiago soldatapeko lanari eskainia. Aldeak daude herrialde desberdinetan amek soldatapeko lanari eskainitako denbora-kopuruari dagokionez, txikiagoa dena Belgikan, Erresuma Batuan eta Alemanian, eta handiagoa herrialde baltikoetan. Herrialde gehienetan, zero eta hamazazpi urte bitarteko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiako amen eta bikotekidearekin bizi diren amen arteko aldeak, oro har, urriak dira, baina eskolaurreko adinean dauden seme-alabak dituzten ezkonduak edo



bikotekidearekin bizi diren amek denbora gutxiago eskaini ohi diote soldatapeko lanari. Etxeko lanei eskainitako denborari erreparatuz gero, ikus dezakegu herrialde gehienetan guraso bakarreko familiako amek denbora gutxiago eskaintzen dietela betebeharrak, eskolaurreko haurrak dituzten amek baino, eta hauek, aldiz, denbora gehiago eskaintzen dietela herrialde gehienetan.

Gizon eta emakumeen arteko enplegu-tasari dagokion aldea Finlandiako %3,6tik Maltako %37,2ra doa. Aldea murriztagoa da Iparraldeko herrialdeetan eta baltikoetan, eta askoz ere handiagoa Europako hegoaldeko herrialdeetan.

Emakumeen artean, lanaldi partzialaren hazkunde erlatiboa garrantzitsua izan da. Lanaldi partzialeko lan gehiago egoteak emakumeen parte-hartzea ahalbidetu du, bereziki beren lan eta familia-ardurak hobeto bateratzea ahalbidetu dielako. Dena den, ez dira ahaztu behar horrek dakartzan desabantailak: lanaldi partziala okerrago ordainduta egon daiteke, pizgarriak eskuratzeko aukera gutxiago dakar eta zailagoa da karrera profesional bat garatzea, eta, neurri jakin batean, lanaldi osoko lan eza islatzen du, hau da, lanaldi partzialak azpi-enplegu egoerak ere eragiten ditu. Hogeita zazpi europar 2000 eta 2007 artean izandako emakumeen enplegu-tasaren hazkundeak bat-bateko geldialdia bizi dezake 2008an (krisia) hasitako muturreko aldaketa ekonomikoei esker.

Familia eta lana bateragarri egiteak, bai gizonei, bai emakumei dagokienez, leku nabarmena dauka Estatu Kideen txostenetan, eta, besteak beste, honako aspektuak aipatzen dituzte: haurrak zaintzeko zerbitzuen hobekuntza eta gehikuntza, eta, batzuetan, baita helduentzako laguntza ere, eta guraso-baimenaren sustapena. Txosten askok nabarmendu egiten dute aiten artean beren seme-alaben heziketan parte-hartze aktiboagoa sustatzeko helburua. Hala ere, ez dira aipatzen ordaindu gabeko bestelako etxeko lan batzuk, Esloveniako txostenean izan ezik, bertan baieztatu egiten baita “gure kezka nagusietariko bat izan dela ordaindu gabeko lanak emakumei dakarkien zamaren banaketa-prozesuan gizonek bete beharreko funtsezko papera”.

Aita eta ama langile guztiek dute gutxienez hiru hilabeteko eszedentziarako eskubidea, soldata eskubiderik gabe, seme-alaba bat jaiotzean. Hainbat Estatu Kidetan neurriak txertatu dira eskubidea edo gurasotasun-baimenen eskaera-kopurua hobetzeko; hala ere, emakumeek egindako eskaeren kopurua gizonek egindakoena baino askoz ere handiagoa da herrialde guztietan; horrek esan nahi du guraso-baimenek ez diotela beti mesede egiten gizon eta emakumeen arteko berdintasunari. Guraso-baimenen ondoriozko aldi luzeek, amek baino ez



erabiliz gero, biztanleria aktibo femeninoa murriz dezakete, eta emakumeen lan-etorkizunari eta diru-sarrerei kalte egin.

Estatu Kideek hartzaindegi eta haur-irakaskuntzako zentroen eskuragarritasuna hobetzeko konpromisoa hartu dute. Herrialde askotan, hartzaindegien proportzio handi batek denbora partzialean baino ez du funtzionatzen, eta irekitze-ordutegiek ez dute beti bat egiten lanarekin, bereziki lanaldi osokoekin. Helduen zaintzari dagokionez, erakundeek apenas ematen dute zerbitzu hau. Horrek eragina du gizon eta emakumeen arteko berdintasunean, izan ere, heldu gehienak emakumeak dira, baita emakumeak ere helduak etxean zaintzen dituzten gehienak.

Lana eta familia aldatzen ari dira. Herrialde gehienetan, emakumeak soldatapeko lanaren munduan sartu dira, baina, oro har, aldaketa honekin batera ez da etorri gizonen etxeko lanen edo familiaren zaintza beren gain hartzea.

Denboraren erabilerari buruzko azterketek berretsi egiten dute soldatapeko eta ordaindu gabeko lanaren arteko banaketa desberdina. Herrialde gehienetan, batez beste, “denbora konprometitua” handiagoa da emakumeentzat gizonentzat baino. Badirudi hori, bereziki, Estatu Kide berrietan gertatzen dela, eta badirudi lotuta dagoela emakumeek soldatapeko lanetan dituzten lanaldi luzeekin.

Zaintza-lanei eskainitako ordaindu gabeko lana oztopo handienetako bat da gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako, eta kalte egiten die emakumeen gaitasunari lan-merkatuan gizonen baldintza beretan parte hartzeko. EB osoan, gizonen lanaldi luzeagoak izaten dituzte soldatapeko lanetan, eta emakumeek, berriz, lanaldi laburragoak soldatapeko lanetan. Hau, aldi berean, gizonen familiaren sostengatzaile gisa eta emakumeen zaintzaile gisa duten paperei buruzko estereotipoen kausa eta ondorioa da, lanari dagokionez dagoen zatiketaren ikuspegia sendotzen duena.

Europako erakundeek eta Estatu Kideek enpleguan gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sustatzeko, eta aitek seme-alaben zaintzan ardura gehiago har ditzaten animatzeko, ahaleginak areagotu dituztela ikusten bada ere, oraindik aldeak daude genero-arrazoiak direla eta. Emakumeek oztopoei sistematikoki egiten diete aurre ia lan-esparru guztietan, soldatapeko lana izan ala ez, lanaldi oso edo partzialean aritu, eskaini edo ukatzen zaien lan motari dagokionez, hartzaindegien eskuragarritasuna, euren soldatak, prestazioak eta lan-baldintzak direla eta, pentsioa izateko eskubideen desberdintasunari dagokionez...



Laburbilduta, Europako zenbait herrialdetan, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko politikak, duela hamarkadak, gizarte-politiken lehentasunezko helburu dira, Europar Batasunaren politikaren baitan ekintza gisa sartuak izan aurretik ere. Beste herrialde batzuetan, bereziki Mediterraneokoetan, neurri hauek Europako araudiak behartuta hartu dira, eta alde handiak daude herrialde batzuen eta besteen artean, bai bateragarritasunean, bai horrek dakartzan ondorioetan.

Hurrengo taulan, aitatasun/amatasun-eszedentzia programa legalen Europako estatu desberdinen arteko alderaketa-laburpen bat aurkezten da



FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIEN LUZETARAKO AZTERKETA

	Eszedentzia-aldia eta ordainketa	Malgutasuna: Eszedentzia lanaldi partzialean har daiteke (diru-sarrerak doitu) edo bloketan; Lan-orduak murrizteko beste aurreikuspen mota bat
Suedia	<p>-Aita/Ama bakoitza: 60 baimen-egun amatasun/aitatasunagatik.</p> <p>-Osotara: nahi bezala banatzeko beste 360 egun, beraz, guraso batek gehienez 420 egun har ditzake. Baimenaren guztirako 480 egunak haurrak 8 urte arte eduki edo lehen eskola urtea bukatu aurretik hartu behar dira.</p> <p>-Diru-sarreraren ordainketa handia baimenaren gehiengoarentzat (360 egunean %80 toperaino eta 90 egun ehuneko baxuko etekinarekin).</p> <p>-Aitak: eszedentziagatik ordainketaren aldia aitentzat gordeta.</p>	<p>Bai- aukera oso malguak guraso-eszedentzia sistemaren baitan.</p> <p>Gainera: aitek ohiko lanaldia %75 murriz dezakete haurrak bere lehen eskola urtea bukatu arte (zortzi urte).</p>
Danimark a	<p>-Aita/Ama bakoitza: 32 aste (64 aste bikoteko) haurrak 9 urte eduki aurretik.</p> <p>-Diru-sarreraren ordainketa handia 64 aste horietako 32rentzat (gutxi gorabehera guraso izatearen ondoriozko diru-sarreraren %90).</p> <p>-Aitak: eszedentziagatik ordainketaren aldia aitei gorde gabea.</p>	<p>Bai- hainbat malgutasun-aukera guraso-eszedentzia sistemaren baitan.</p>

TAULA: EB21EKO AMATASUN/AITATASUN-ESZEDENTZIA PROGRAMA LEGALEN IRAUPEN ETA FINANTZA-LAGUNTZA MAILAREN LABURPENA. ESTATUEN ARABERA³

	Eszedentzia-aldia eta ordainketa	Malgutasuna: Eszedentzia lanaldi partzialean har daiteke (diru-sarrerak doitu) edo bloketan; Lan-orduak murrizteko beste aurreikuspen mota bat
Eslovenia	<p>-Osotara: 260 egun seme-alabako, amatasun-baimenari jarraiki</p> <p>-Aitak: 75 eguneko aitatasun-eszedentzia eskubidea dute amatasun-baja ondoren, eta 15 eguneko amatasun-baja bitartean</p> <p>-Diru-sarreraren %100 ematen da</p> <p>-Aitentzat, 75 egunak pentsio baxukoak dira.</p>	<p>Bai- Edo aitak edo amak lanaldi partzialean lan egiteko eskubidea dute haurrak 3 urte bete arte.</p>
Hungaria	<p>-Osotara: haurrak 3 urte dituen arte.</p> <p>-Diru-sarreraren neurritzko ordainketa (batez beste diru-sarreraren %70etik gora).</p>	<p>Bai- baja hartzen duen aitak edo amak lanaldi partzialean aritzeko eskubidea dute haurrak 18 hilabete eta 3 urte izan bitartean.</p>



TAULA: EB21EKO AMATASUN/AITATASUN-ESZEDENTZIA PROGRAMA LEGALEN IRAUPEN ETA FINANTZA-LAGUNTZA MAILAREN LABURPENA. ESTATUEN ARABERA³

	Eszedentzia-aldia eta ordainketa	Malgutasuna: Eszedentzia lanaldi partzialean har daiteke (diru-sarrerak doituta) edo bloketan; Lan-orduak murrizteko beste aurreikuspen mota bat
Finlandia	-Oсотara: 26 aste seme-alabako, amatasun-bajari jarraiki. -Aitak: aitak guraso-baimenaren azken 12 egunak hartuz gero, 12 laneguneko gehigarria bermatzen zaio. Diru-sarreraren neurrizko ordainketa (batez beste diru-sarreraren %66). Zaintzagarriko baimena diru-laguntza finko baxu batek eusten du.	Bai -guraso-baja lanaldi partzialean har daiteke baimen partzial batekin (hala nola zaintzagarriko baja eskubidea)
Italia	Oсотara: 10 hilabete haurrak 8 urte eduki aurretik. Aitak: 11 hilabetera hedatzen da aitak, gutxienez, 3 hilabete hartuz gero. -Diru-sarreraren ordainketa egokia (%30 6 hilabetez haurrak 3 urte baino gutxiago dituenen).	Ez.
Austria	-Oсотara: haurrak 2 urte izan arte (lau urte, baimena lanaldi erdian hartuz gero). -Aitak: ordainketa 6 hilabetera hedatzen da, bajaren bat hartuz gero. -Pentsio finkoa haurrak 18 hilabete dituen arte-24 hilabetera luzagarria, aitak bajaren bat hartuz gero.	Bai -lanaldi erdia har dezake. Gainera: lanaldi erdiz lan egiteko eskubidea haurrak 4 urte eduki arte (eta egoera batzuetan haurrak 7 urte izan arte).
Alemania	-osotara: haurrak 3 urte bete arte. -Pentsio finkoa 6 hilabetez eta diru-sarrera egiaztatuak 18 hilabetez. (Etxe gutxik dute eskubidea).	Bai -baja blokeen arabera har daiteke eta baja hartzen duen ama/aitak lanaldi erdiz egin dezake lan (15-30 ordu astean). Gainera: langileek lanaldi erdiz egiteko eskubidea dute 15 langile edo gehiagoko enpresetan.
Frantzia	-Oсотara: haurrak 3 urte eduki arte (bi seme-alaba edo gehiago izateko kasuan bakarrik aplikagarria). -Errenta finko bat 6 hilabetez lehen seme-alabagarri; aldi osoa bi edo gehiago izateko kasuan.	Bai -Baja lanaldi erdian har daiteke, diru-sarrerak doituta (amek edo aitek).

TAULA: EB21EKO AMATASUN/AITATASUN-ESZEDENTZIA PROGRAMA LEGALEN IRAUPEN ETA FINANTZA-LAGUNTZA MAILAREN LABURPENA. ESTATUEN ARABERA³

	Eszedentzia-aldia eta ordainketa	Malgutasuna: Eszedentzia lanaldi partzialean har daiteke (diru-sarrerak doitu) edo bloketan; Lan-orduak murrizteko beste aurreikuspen mota bat
Belgika ****	-Aita/ama bakoitza: 6 hilabete lanaldi osoz edo 12 lanaldi erdiz haurrak 4 urte bete arte. -Errenta finkoa.	Bai -lanaldi erdia har dezake. Gainera: "Karrera haustura plana" k lanaldi erdia eta ordu-murrizketari heltzeko aukera dauka, errenta finkoa izanda 5 urtez (estalitako batez besteko ehunekoa %26koa da).
Luxenburg	-Aita/ama bakoitza: 6 hilabete lanaldi osoz edo 12 lanaldi erdiz haurrak 5 urte bete arte. -Errenta finkoa. -Errenta finkoa, gutxieneko soldatarik hurbilekoa.	Bai - lanaldi erdiari hel diezaioke.
Txekiar Errepublika	-Batera: haurrak 4 urte bete arte. -Oso errenta baxua (gutxieneko bizi-mailaren %2 baino gutxiago).	Ez
Polonia	-Batera: haurrak 4 urte bete arte. -Errenta finkoa errenta baxuko familientzat (gutxieneko soldataren %60) 24 hilabetez. -Gainera: 4 urtetik beherako haurrak dituzten aitek/amek eskubidea dute egunean ez egiteko 8 ordu baino gehiago lan, edo gauez edo etxetik urrun ez egiteko.	Ez
Letonia	-Batera: haurrak 3 urte bete arte. -Errenta finko baxua. Handiagoa 18 hilerako eskatuz gero (36rako eskatu beharrean).	Zenbait - baja blokeen arabera har daiteke, haurrak 8 urte bete arte, eta errenta lanaldi partzialean lan egin bitartean jaso daiteke.
Grezia	Aita/ama bakoitza: 3.5 hilabete sektore pribatuan haurrak 3.5 urte bete arte; 2 sektore pribatuan haurrak 6 urte izan arte. -Ordaindu gabea.	Ez . Gainera: Aita/amek lanaldi-murrizketa txikiak izateko eskubidea dute, edo baja-aldi baten baliokidea amatasun-bajari jarraituta ezarritako aldi batean, diru-sarrerarik galdu barik (haurra zaintzeagatik baja ordaindua).
Espania	Batera: haurrak 3 urte bete arte. Soldatarik gabe.	Ez . Gainera: 8 urtetik beherako haurra duen (edo mendeko pertsona baten zaintza) aita/amak bere lanaldia %66 edo %50ra murrizteko eskubidea du.
Portugal	Aita/ama bakoitza: 6 hilabete lanaldi osoz umeak 3 urte bete arte Aitak: 15 eguneko baimena, aitatasun edo amatasun-baja ostean berehala. Soldatarik gabe, aitentzako 15 egunetan izan ezik (diru-sarreraren %100).	Zenbait -baja haurrak 3 urte bete arte. Gainera: aita/amak lanaldi erdiz lan egiteko edo orduak murrizteko eskubidea du, haurrak 12 urte bete arte.
Herbehereak	Aita/ama bakoitza: 3 hilabete lanaldi osoz edo 6 lanaldi erdiz haurrak 8 urte bete aurretik. -Soldatarik gabe.	Bai -lanaldi erdiari hel diezaioke. Gainera: besteren konturako langileek lanaldi erdia edo lanaldi osoa leheneratzea eska diezaiekete enplegatzaileei.

TAULA: EB21EKO AMATASUN/AITATASUN-ESZEDENTZIA PROGRAMA LEGALEN IRAUPEN ETA FINANTZA-LAGUNTZA MAILAREN LABURPENA. ESTATUEN ARABERA³

	Eszedentzia-aldia eta ordainketa	Malgutasuna: Eszedentzia lanaldi partzialean har daiteke (diru-sarrerak doitu) edo bloketan; Lan-orduak murrizteko beste aurreikuspen mota bat
Irlanda	Aita/ama bakoitza: 3 hilabete lanaldi osoz haurrak 5 urte bete aurretik. -Soldatarik gabe.	Bai - lanaldi erdiari hel diezaioke, edo blokeen arabera.
Erresuma Batua	Aita/ama bakoitza: 3 hilabete lanaldi osoz haurrak 5 urte bete aurretik. -Soldatarik gabe.	Zenbait -urteko, gehienez 4 asteko baja. Gainera: 2003tik, haur txikiak dituzten gurasoek orduak murrizteko edo malguago egiteko eska diezaieket enplegatzaileei.
Zipre	Aita/ama bakoitza: 3 hilabete lanaldi osoz haurrak 6 urte bete aurretik. -Soldatarik gabe.	- Zenbait -urteko, gehienez 4 asteko baja.

**** 1985ean, "Karrera haustura lana" sektore pribatuan zein publikoan sartu zen. 2002an, plan hori beste batek ordezkatu zuen, zabalagoa eta malguagoa, "Denbora-kreditu plana"k, hain zuzen; bertan, jasota dago langileek lanaldi-murrizketa %20an eska dezaketela gehienez 5 urterako. 2005eko Erreformen Programa Nazionalak xehatu egiten du Belgikako gobernuaren asmoa denbora-kredituen iraupena 5 urtetik urtebetara murrizteko, langile zaharrenek beren kredituak lan-merkatutik aurreraturiko erretirorako gordetzea ekiditeko.

Oharra: Herrialdeak, maila orokorrean guraso-baja garaian gurasoei emandako laguntza ekonomikoaren hedapenaren arabera daude sailkatuta.



3. AZTERKETAREN HELBURUAK

Azterketa honen helburu nagusia izan da aztertzea zein neurritan eragin duten seme-alabak edo mendeko pertsonak zaintzeko lan-eszedentziari eta lanaldi-murrizketei Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzek pertsona horiek neurri horiek erabakitzeke, eta zein eragin izan duten haien bizitza pertsonal, familiar eta lanekoan.

Helburu orokor hau landa-lana egitean gauzatu da, familia eta lana bateragarri egiteko Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen dituen honako neurri hauen biztanleria onuradunari buruzko informazioa jasotzeko:

- ▶ Seme-alabak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak.
- ▶ Mendekotasun edo muturreko osasun-larritasun egoeran dauden senideak zaintzeko eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak.
- ▶ Zaintzaileak kontratatzeke laguntzak.

Azken zortzi urteotan lana eta familia bateragarri egiteko neurri hauen laguntza ekonomikoei heldutako pertsonen unibertsoaren lagin nahikotik jasotako datuen azterketak, zenbait helburu instrumental zehaztea ahalbidetu digu, honakoak ezagutzeko aukera eman digutenak: laguntzei heldutako pertsona/familien profila, rol familiarak etxeko lanen banaketan, enpresen jarrerak neurriei dagokienez, lana eta familia bateragarri egiteko hautemandako oztopoak eta izan daitezkeen beste neurri batzuei dagokienez egungo erabiltzaileek hautemandako bideragarritasuna.



4. METODOLOGÍA

Azterketa hau egiteko prozesu metodologikoak baldintza-orrian eta lan-proposamenean adierazitako jarraibideak jarraitu ditu.

Planteamendu guztia hainbat **fase eta etapatan** eraturiko prozesu gisa jaso da, eta **PDCA** deritzon zikloa aplikatu zaio: Planifikatu – Egin – Egiaztatu – Doitu.

Eratzen duten **Faseak**, gero Metodologian deskribatuko ditugunak: Proiektuaren Faseak, izan dira:

➤ **Diseinua eta Plangintza**

Irizpide **prebentiboetan** oinarrituriko fasea, informazioa jaso bitartean izan daitezkeen gertakizunei dagokienez. Bestetik, prozesuan erabilitako informazioa jasotzeko “ereduen”, “iturri” erabilgarrien eta “baliozkotze” metodoen aurretiko definizio argiak **funtsezko osagai** bihurtu dute fase hau proiektua egoki burutzeko.

➤ **Informazio-bilketa**

Azterketa egiteko informazio-bilketak bulego eta landa-lana uztartu ditu, alderdi bikoitzan: kualitatiboa eta kuantitatiboa, “zuzeneko behaketa”rekin batera. Informazioa biltzeko metodoak gai izan dira inplikaturiko eragileen ikuspuntu guztiak jasotzeko, bai Eusko Jaurlaritzak arau ditzakeen aspektuei dagokienez, bai egoerari buruzko ikuspegi oso batetik.

➤ **Emaitzen ustiapena eta azterketa**

➤ **Ondorioak, Behin betiko txostena eta emaitzen aurkezpena**



4.1 Azterketaren eremu geografikoa

Azterketaren eremu geografikoa EAE da, orekaz eraginda hiru Lurralde Historikoen errealitatean.

Planteamendu hau osorik barneratuta, laginerako hainbat puntu hautatu dira Lurraldeetako hiriburuetan (erdigune-periferiaren arabera eta izan daitezkeen auzoetako ezaugarri berezituaren arabera), udalerrietan biztanleria-kopuruaren eta landa-hiri izaeraren arabera.

4.2 Ikerketa-teknikak

4.2.1 Zeharkako iturrien azterketa eta azterketa-esparruaren gaineko dokumentazioa

Azterketa honen helburuarekin loturiko txosten, dokumentu eta datu-iturri ororen arakatze, arazte eta azterketarekin batera, Europako zuzentarauak eta dokumentazioa aztertu dira.

4.2.2 Zuzeneko informazio-iturriak

Teknika kuantitatiboak (etxez etxeko elkarrizketa)

Laguntzari heldutako pertsonen unibertsoan, lagin-puntu batzuk hautatu ziren (udalerriak), **1.602 onuraduneko** lagina eginda. Modu nominalean hautaturiko pertsonari erdi egituraturiko galdetegi bat aplikatu zitzaion.

Laginaren banaketa jarraiki aurkezten diren tauletan aurkeztu bezala gelditu zen eratuta.

Laguntza eskatutako **URTEA**ren arabera:

URTEAK	Inkesta-kop.
2002	95
2003	115
2004	133
2005	174
2006	168
2007	241
2008	311
2009	365
Guztira	1602

Laguntza eskatu zuenaren bitokia laguntza eskatu zuen unean zegoen **LURRALDEA**ren arabera:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Inkesta-kop.	327	759	516
G%	20,4%	47,4%	32,2%

ESKATZAILEAREN GENEROAREN arabera eta laguntza zein **NEURRI MOTATARAKO** eskatu zuen.

Inkesta-kop.	EMAKUMEA	GIZONA	GUZTIRA
MURRIZKETA	992	109	1101
G%	72,6%	46,4%	68,7%
ESZEDENTZIA	309	90	399
G%	22,6%	38,3%	24,9%
KONTRATAZIOA	66	36	102
G%	4,8%	15,3%	6,4%*
GUZTIRA	1367	235	1602
G%	100%	100%	100%

*Gehitu egin zaie legokiekeen elkarrizketa-kopurua, ikerketaren unibertsoan benetako pisuaren arabera, Kontratazio neurriari heldu dioten pertsonen, neurri mota honi heldutako pertsonen gutxieneko lagin esanguratsua eskuratzeko.

Arrazoi beragatik, gehitu egin zaie elkarrizketa-kopurua Murrizketa eta Eszedentziari heldutako gizonei (gizonen benetako pisua %6,96koa da, eta laginean %14,7ra igotzen da).



Lagin honen adierazgarritasunak $\pm 2,5$ eko errore-marjina dakar, %95eko konfiantza-mailan ($p=50$, $q=50$). Nahikoa azterketaren helburuetarako.

Estrategia bikoitza planifikatu zen: subjektuengana hurbiltzekoa eta diskurtsoetara hurbiltzekoa, honako urratsen bidez bihurtuta eraginkor.

- **Hamar elkarrizketa sakon egitea** neurri hauei heldutako pertsoneri:
 - o Helburu orokorra: galdetegiaren edukia hobetzea
 - o Helburu zehatzak:
 - Galdetegiko gaietan sakontzea
 - Gai berriak edo galdera esanguratsuak identifikatzea
 - Diskurtso motak identifikatzea
 - o Egin beharreko eragiketak:
 - Elkarrizketatzeko profilen definizioa: kontuan hartuta erreferentziazko biztanleriaren ezaugarriak.
 - Ondorioen prestaketa eta galdetegiaren moldaketa, elkarrizketa hauetako ondorioei erreparatuta.

- **Aurre-testa egitea**
 - o Helburu orokorra: galdetegiaren barne-egokitasuna hobetzea
 - o Helburu zehatzak
 - Anbiguitasunak eta azaleko galderak ezabatzea
 - Galdera zailak erraztea
 - Komunikazio-fluxua arintzea: galderen ordena aldatu, idazketa zuzendu...
 - o Egin beharreko eragiketak:
 - 25 laguneko lagin bat hautatu. Zorizko laginketa
 - Galdetegia aplikatu
 - Inkestazaileek, gertakizunik esanguratsuenak jaso
 - Bilera talde ikertzailearen eta landa-lanerako taldearen artean, gertakizunik esanguratsuenak jasotzeko.
 - Talde ikertzailearen bilera eta galdetegia berriz egin.



- **Talde aholkulariaren ekarpenak:** Kontuan hartu dira hizkuntzaren neutraltasunarekin loturiko aspektuak, egindako galderekiko susmo oro ekidinda, hizkuntza erraz, argi eta diskriminaziorik gabea erabiliz, gainera, genero-aldagaia zeharkakoa izan zaio lanari.

- **Administrazioak galdetegia baliozkotzea**
 - o Galdetegia sailera bidali, berraztertzeko
 - o Harremanak Sailaren arduradunekin batzorde teknikoan galdetegia baliozkotzeko.
 - o Behin betiko galdetegiaren onarpena eta berau egitea.

Jarraiki, proiektuaren faseak eta bakoitzean izandako eginkizunak zehazten dira:

1. fasea: Diseinua eta Plangintza

1. E Azterketaren Koordinazio Batzordearen eraketa. Proiektuaren berrazterketa.
2. E Dokumentazio eta informazio-iturri eskuragarrien zehaztapena.
3. E Landa-lanaren antolaketa eta plangintza.

2. fasea: Informazio-bilketa

4. E Zeharkako iturrietatik lorturiko informazioaren bilketa eta azterketa
5. E Landa-lana
6. E Landa-lanaren kontrola eta ikuskapena

3. fasea: Emaizten ustiapena eta azterketa

7. E Datuen grabaketa eta ustiapena. Informazioaren ustiapena
8. E Emaizten azterketa

4. fasea: Ondorioak, behin betiko txostena eta emaitzen aurkezpena

9. E Behin-behineko txostenaren idazketa
10. E Behin-behineko txostenaren berrazterketa. Onarpena
11. E Behin betiko txostena eman. Laburpena eta Ondorioak


5. AZTERTU BEHARREKO UNIBERTSOAREN EZAUGARRIAK

Azterketaren unibertsoa, 2002tik 2009ra lana eta familia bateragarri egiteko neurrietarako laguntzei heldutako pertsona guztiek osatzen dute.

Jarraiki, aztertu beharreko unibertsoaren daturik esanguratsuenak aurkezten dira.

Laguntza eskaturiko **LANA ETA FAMILIA BATERAGARRI EGITEKO NEURRI MOTAREN** arabera:

T% DE PERSONAS ACOGIDAS A LAS AYUDAS POR MEDIDAS DE CONCILIACIÓN



URTEAK	ESZEDENTZIA					
	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	E	G	E	G	E	G
2002	119	4	246	12	188	4
2003	359	9	816	26	622	15
2004	423	16	1052	33	715	22
2005	474	18	1023	36	813	15
2006	498	15	1174	41	870	27
2007	380	14	920	31	661	24
2008	520	20	1210	26	881	30
2009	622	26	1574	40	953	35
Azpi-uztirakoa2	3395	122	8015	245	5703	172
Guztira Lurraldeak	3517		8260		5875	
GUZTIRA	17652					

URTEAK	ESZEDENTZIA					
	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	E	G	E	G	E	G
2002	470	43	838	37	587	38
2003	824	66	1978	118	1366	68
2004	968	87	2301	137	1625	78
2005	1039	97	2521	155	1829	110
2006	1164	100	2832	175	2059	130
2007	746	74	2017	141	1439	91
2008	1583	151	3931	228	2583	157
2009	2233	202	5379	320	3358	225
Azpi-guztirakoa	9027	820	21797	1311	14846	897
Guztira Lurraldeak	9847		23108		15743	
GUZTIRA	48698					

URTEAK	MURRIZKETA					
	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	E	G	E	G	E	G
2002	-	-	-	-	-	-
2003	-	-	-	-	-	-
2004	-	-	-	-	-	-
2005	-	-	-	-	-	-
2006	-	-	-	-	-	-
2007	7		20	14	10	9
2008	20	11	63	30	28	16
2009	15	10	88	46	32	16
Azpi-guztirakoa	42	21	171	90	70	41
Guztira Lurrealdeak	63		261		111	
GUZTIRA	435					


%72,9k lanaldi-murrizketari heldu diote, %26,4k eszedentzia eskatu dute eta %0,07k, berriz, zaintzaile bat kontratatu dute.

Zaintzaileak kontratatuzeko laguntzak 2007an hasi ziren.

Eskatzaileen %93,04 emakumeak izan dira, gizonak, aldiz, %6,96 eskasa.

ARRAZOIA	EMAKUMEAK %	GIZONAK %	GUZTIRA %
SEME-ALABAK ZAINTEKO LANALDI-MURRIZKETA	92,61%	7,39%	100%
MENDEKOAK ZAINTEKO LANALDI-MURRIZKETA	92,78%	7,22%	100%
SEME-ALABAK ZAINTEKO ESZEDENTZIA	96,81%	3,19%	100%
MENDEKOAK ZAINTEKO ESZEDENTZIA	89,23%	10,77%	100%
ZAINTZAILEEN KONTRATAZIOA	66,15%	33,85%	100%
GUZTIRA	93,04	6,96	100%

Laguntza eskaturiko **URTEA**ren arabera.



URTEAK	E	G%	G	G%	GUZTIRA	G%
2002	2448	94,7	138	5,3	2586	3,87%
2003	5965	95,2	302	4,8	6267	9,39%
2004	7084	95,0	371	5,0	7455	11,17%
2005	7699	94,7	431	5,3	8130	12,18%
2006	8597	94,6	488	5,4	9085	13,61%
2007	6190	94,2	384	5,8	6574	9,85%
2008	10819	94,2	669	5,8	11488	17,21%
2009	14254	93,9	920	6,1	15174	22,73%
GUZTIRA	63056	94,5	3703	5,5	66759	100,00%

Seme-alabako batez besteko egunak apur bat gehiago dira arrazoa mendeko bat zaintzea denean baino, nahiz eta aldea ez izan estatistikoki esanguratsua. Aldea bada esanguratsua kontratazioaren kasuan, ez baita ezta laurehun egunera heltzen.

ARRAZOIA	BATEZ BESTEKO EGUNAK
HIJO	1.170
DEPENDENCIA	1.130
CONTRATACIÓN	392,82
GUZTIRA	1.162,20

Neurri motak hein handiagoan zehazten du egunen batez bestekoa; hala, eszedentzian batez besteko egunak gutxiago dira, edozein izanda ere arrazoa, lanaldi-murrizketako batez bestekoa, aldiz, egun-kopuruaren oso antzeko mantentzen da.

ARRAZOIA	MOTA	BATEZ BESTEKO EGUNAK
HIJO	EXCEDENCIA	832,65
	REDUCCIÓN	1.239,44
DEPENDENCIA	EXCEDENCIA	652,65
	REDUCCIÓN	1.216,95
CONTRATACIÓN		392,82

6. AZTERKETAREN EMAITZAK

6.1- Familia eta lana bateragarri egitera bideraturiko Eusko Jaurlaritzaren laguntzei heldutako pertsonen profila.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen hartzaileen ezaugarri soziodemografikoak, unibertsoaren ezaugarriei buruz aurreko kapituluan aipatu bezala, nagusiki emakumezkoak dira, %94,5, eta gizonezkoak, berriz, %5,5. Pertsona horien batez besteko adina 34,6 urtekoa da (tartea gutxienez 20 urte eta gehienez 59 izanda). Emakumeen artean, batez besteko adina 34,2 urtekoa da eta gizonezkoen artean 37koa. Azterturiko aldian zehar (2002tik 2009ra), ez da alde handirik gertatzen aspektu hauetan.

Sexua	Batez besteko adina
Mujer	34,2 años
Hombre	37,0 años
Total	34,6 años

Adina neurriari heltzean	
	Batez besteko adina
Eszedentzia	35,0 años
Lanaldi-murrizketa	34,3 años
Kontratazioa	36,5 años
Guztira	34,6 años

Laguntzei heldutako gizonen ehunekoa apur bat igotzen da 2007tik aurrera, zaintzaileak kontratatzeko laguntzak hasi zirenean. Baina kontuan hartu behar da, heldutako neurriaren arabera -zaintzaileen kontratazioa-, gizonen ehuneko handiagoak ez dakarrela ardua familiar gehiago hartzea beren gain. Alderantziz, baliteke esanahia izatea rolak mantendu eta errepikatu egiten direla, ardua familiar jakin batzuk gizonak baino ez dituela betetzen, kasu.


Elkarrizketaturiko pertsonen %96,9 ezkonduita/izatezko bikote/elkarrekin bizitzen zeuden neurriari heldu ziotenean, %2,1 bikoterik gabeak ziren eta %1 alargun/banatuta edo dibortziatuta zegoen. Zentzu honetan, 2006ko datuen arabera, EAEn familien %8,32 guraso bakarrekoak ziren, beraz, ezaugarri hori gutxiago dago ordezkatuta neurriari heldutako pertsonen artean.

Une honetan, pertsona hauen egoera zibila honela bilakatu da: ezkonduita/izatezko bikote/elkarrekin bizitzen daudenak %95,2 dira; %1,6 bikoterik gabeak dira eta

alargun/banatuta edo dibortziatuta daudenak, berriz, %3,2. Ezkonduen kopurua jaitsi egin da apur bat, hala nola bikote gabeena, eta bikotekidea izan zuten arren orain ez dutenena igo egin da.

Neurriei heldutako elkarriketatuen hezkuntza-maila handia da, %46,5ek unibertsitateko ikasketak dituzte, %43,1ek batxilergoa/LH2 egin dute, %9,7k lehen hezkuntzako ikasketak dituzte (OHO/LH1) eta %0,7k ez dutela ikasketarik diote.

Heziketa-mailia neurriari heltzean



Neurriari heltzerakoan egindako arauturiko ikasketak . Urteen arabera (G%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Ikasketarik gabe	-	1,7	1,5	0,6	-	0,4	0,3	0,5	0,6
Lehen hezkuntza (OHO, LH1)	8,4	7,0	5,3	13,2	10,1	10,7	12,2	7,4	9,6
Tartekoak (Batxilergoa, LH2)	42,1	50,4	54,9	43,1	39,3	39,3	42,8	41,9	43,3
Unibertsitatekoak	49,5	40,9	38,3	43,1	50,6	49,6	44,7	50,2	46,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100



Neurriari heltzeko unean adierazi duten prestakuntza osagarria (%):

- Trebakuntza-ikastaroak oro har	29,8
- Ofimatika/Informatika/Diseinua	14,9
- Euskara	11,6
- Masterra/Graduondoa/Doktoretza/BAME	11,0
- Enpresako trebakuntza-ikastaroak	7,0
- Hizkuntzak	6,3
- Klinika/geriatria/erizaintza/...laguntzailea	4,3
- Administrataria/Idazkaritza	3,9
- Laneko Arriskuen Prebentzioa	3,1

Egun adierazi duten prestakuntza osagarria (%):


- Trebakuntza-ikastaroak oro har	42,0
- Ofimatika/Informatika/Diseinua	8,6
- Euskara	14,0
- Masterra/Graduondoa/Doktoretza/BAME	9,3
- Enpresako trebakuntza-ikastaroak	11,3
- Hizkuntzak	5,1
- Klinika/geriatria/erizaintza/...laguntzailea	2,7
- Administrataria/Idazkaritza	0,4
- Laneko Arriskuen Prebentzioa	1,6
- Oposaketak	1,2

Gehitu egin dira trebakuntza-ikastaroak oro har, enpresako trebakuntza-ikastaroak, euskara-ikaskuntza eta oposaketen prestaketa egin duten pertsonak.

Laguntza eskatutako urtea	Batez besteko prestakuntza-orduak neurriari heltzeko unean	Batez besteko prestakuntza-orduak egun
2002	553,90	577,35
2003	268,73	282,48
2004	454,04	481,48
2005	285,52	244,47
2006	471,03	490,84
2007	457,69	492,93
2008	422,12	409,08
2009	392,88	428,81
Guztira	413,33	426,65

Neurriari heldutako aldian zehar, beren prestakuntza %16,1ek areagotu zuten. Lanaldi-murrizketari heldutako pertsonak dira neurri handiagoan egin dutenak (%17,2); eszedentziari helduta prestakuntza areagotu dutenak %13,5 dira.

Neurriak garatu bitarteko prestakuntza. Urteen arabera



Urte hauetan zehar, neurriari heldutako pertsona gehienek ezagutzen dute besteren bat egoera berean. 2007 eta 2008 urteetan zehar bikoiztu egin zen familia eta lana bateragarri egiteko neurriari heldutako beste pertsona bat ez dutela ezagutzen dioten ehunekoa.

Ezagutzen duzu lana eta familia bateragarri egiteko neurriari heldutako beste lagunen bat? Laguntza eskatutako urtearen arabera

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	Guztira
BAI	97,9	90,4	94,7	95,4	95,2	89,2	90,0	93,6	92,7
EZ	2,1	9,6	5,3	4,6	4,8	10,8	10,0	6,4	7,3
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100

6.2- Lan-egoera

Familia eta lana bateragarri egiteko neurriari heltzeko unean %100ek lanean egon behar zuen, egun beren egoera honela bilakatu da:

Egungo lan-egoera. Urteen arabera (G%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Lanean	95,7	87,0	90,2	84,5	90,5	87,6	89,2	94,2	90,1
Langabezian	3,2	13,0	7,5	11,5	8,3	11,6	9,6	4,7	8,5
Ez aktibo	1,1	-	-	1,1	0,6	-	0,3	0,3	0,4
Etxean lanean	-	-	2,3	2,3	0,6	0,8	0,6	0,8	0,9
Bestelakoak	-	-	-	0,6	-	-	0,3	-	0,1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Lanean %90,1 daude, %8,5 langabezian, %0,9 etxean lan egitera igaro dira eta %0,4ren egoera ez aktiboa da (lan egiteko adina izanda, lan-masan parte ez hartzea erabakitzen duten pertsonak). Laguntza eskatutako urteak ez du joera argirik adierazten, eta fluktuazioak sortzen dira.

Sexuaren araberako lan-egoeraren bilakaerak nabarmen uzten du langabeziak gehiago eragin diela emakumeei. Sexua ez da erabakigarria egun etxean lan egiten dutela dioten ehuneko txikiarentzat.

	EMAKUMEA	GIZONA	GUZTIRA
Lanean	88,9%	96,6%	90,1
Langabezian	9,6%	2,6%	8,5
Ez aktibo	0,4%	-	0,4
Etxean lanean	1,0%	0,9%	0,9
Bestelakoak	0,1%	-	0,1
GUZTIRA	100	100	100

Orain langabezian dauden emakumeen %68,7k lanaldi-murrizketari heldu zioten, eta %30,5ek eszedentziari.

Neurriari heltzeko unean, %20,2k Administrazioan edo enpresa publikoan egiten zuten lan eta %79,8k, berriz, enpresa pribatuan. Egun, Administrazioan edo enpresa publikoan lan egiten zuten neurriei heldutako pertsonen ehunekoa hiru puntu gehitu da, %23,2 da, eta neurri berean murriztu da, %76,9ra, enpresa pribatuan daudenena. Ehuneko hauek bat datoz, gutxi gorabehera, EAEko langile guztien enpresa motaren araberako banaketarekin.

Neurriari heltzeko unean LAN EGITEN ZUEN enpresa mota. Urteen arabera (G%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Adm./Publikoa	41,5	19,1	19,9	18,4	22,6	16,5	18,0	19,5	20,2
Pribatua	58,5	80,9	80,1	81,6	77,4	83,5	82,0	80,5	79,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100


EGUN LAN EGITEN DUEN enpresa mota. Urteen arabera (G%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Adm./Publikoa	42,9	22,0	23,7	25,2	27,8	17,5	20,2	21,2	23,2
Pribatua	57,1	78,0	76,3	74,8	72,2	82,5	79,8	78,8	76,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Lehen urtean, 2002an, neurriak ezarri ziren urtean, Administrazioan edo enpresa publikoan lan egiten zutenen ehunekoa 41,5ekoa zen. Gainerako urteetan, enpresa mota honetan, guztirako batez bestekoaren antzeko ehunekoak izan dira, %16,5 (2007) eta %22,6 (2006) artean.

Neurriari heltzeko unean lan egiten zuten enpresen ezaugarriak honakoak dira: 250 langile baino gehiagokoak (%36,8) edo 25 baino gutxiagokoak (%30,5). Nagusiki, jarduera hauei eskainiak: gizarte-jarduerak eta zerbitzu-jarduerak (%25,3), merkataritza/ibilgailuen konponketa (%18), hezkuntza (%9,5), osasungintza (%9,1), herri administrazioa/defentsa eta gizarte-segurantza (%6,6) eta metalgintza eta produktu metalikoen fabrikazioa (%5,9). Lurraldean bertan zuten lanpostua Araban bizi zirenen %91,4k, Bizkaikoen %96,6k eta Gipuzkoakoen %95,3k.

Enpresaren neurria familia eta lana bateragarri egiteko neurriei heltzean. Urteen arabera



%91,1ek kontratu finkoa zuten, %0,8 aldi baterako langileak ziren eta %0,9 aldizkakoak. Kontratu motari dagokionez, lanaldi osoa %89,4k zuten eta lanaldi partziala %10,6k.


Neurriari heldu AURREKO kontratu mota. Urteen arabera (G%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Finkoa	91,6	90,4	86,5	89,7	91,7	94,6	89,7	92,1	91,1
Aldi baterako	8,4	7,0	12,0	10,3	7,1	4,6	9,6	6,8	8,0
Aldizkakoak	-	2,6	1,5	-	1,2	8,0	0,6	1,1	0,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

EGUNGO kontratu mota. Urteen arabera (G%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Finkoa	92,3	88,0	88,2	91,1	92,1	93,8	89,9	91,0	91,0
Aldi baterako	7,7	9,0	8,4	8,2	5,9	5,7	9,4	7,3	7,6
Aldizkakoak	-	3,0	3,4	0,7	2,0	0,5	0,7	1,7	1,4
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Neurriari heldu AURREKO kontratu mota. Urteen arabera



Egoera hau, egunera arte, oso gutxi bilakatu da kontratu motari dagokionez; hala ere, apur bat gehitu dira lanaldi osoz aldizka kontrataturiko pertsonak (%1,4).

Aldiz, bai izan du jaitsiera lanaldi osoko kontratu motak (%82,8), ia zazpi puntu gutxiago, neurri berean gehituta lanaldi partzialeko kontratuak.

Neurriari heldu AURREKO kontratu mota. Urteen arabera (G%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Lanaldi osoa	87,4	90,4	94,0	87,9	94,0	90,0	83,2	91,2	89,4
Lanaldi partziala	12,6	9,6	6,0	12,1	6,0	10,0	16,8	8,8	10,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Modalidad del Contrato ACTUAL (Sólo de las personas que han finalizado la medida de conciliación). Por años (T%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Lanaldi osoa	76,19	83,33	79,41	84,29	92,54	84,76	77,31	85,07	82,80
Lanaldi partziala	23,81	16,67	20,59	15,71	7,46	15,24	22,69	14,93	17,20
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Funtsean, emakumeak dira lanaldi osoko kontratu bat izatetik lanaldi partzialekoa izatera igaro direnak, ia 8 puntu gehitu da egun lanaldi partzialeko kontratua duten emakumeen kopurua (%19,12). Gizonezkoiei dagokienez, lanaldi partzialeko kontratua dutenak ere lau puntu gehitu dira behin neurria burututa (%5,5etik %9,86ra).

	Neurriari heltzeko unean			Egun (Neurria burutu duten pertsonak)		
	Emakumea	Gizona	Guztira	Emakumea	Gizona	Guztira
Contrato a tiempo completo	88,5	94,5	89,4	80,88	90,14	82,80
Contrato a tiempo parcial	11,5	5,5	10,6	19,12	9,86	17,20
Total	100	100	100	100	100	100

Neurriari heldu aurretik egiten zuten lanaldi mota honela banatzen da:

Lanaldi mota Aurretik. Urteen arabera (G%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Jarraitua	32,6	25,2	19,5	29,9	26,8	32,0	37,0	35,2	31,4
Zatitua	45,3	59,1	51,2	45,4	48,2	52,2	40,8	42,8	46,7
Txandaka	22,1	15,7	29,3	24,7	25,0	15,8	22,2	22,0	21,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Lanaldi mota Egun. Urteen arabera (G%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Jarraitua	51,6	59,0	50,9	59,2	57,9	59,5	61,2	60,8	58,7
Zatitua	28,6	31,0	23,3	21,8	22,4	25,7	21,2	19,6	23,0
Txandaka	19,8	10,0	25,8	19,0	19,7	14,8	17,6	19,6	18,3
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Lanaldi motan ere lotura esanguratsua ikusten da kontratu motan izandako aldaketekin, nabarmen gehitu dira lanaldi jarraitua duten pertsonak (%31,4tik %58,7ra) eta gutxitu lanaldi zatituak dituztenak (%46,7tik %23ra) eta txandaka dabilzanak (%21,9tik %18,3ra).

%38,8k zapatu edo iganderen batean lan egiten zuen, egun %34,2k egiten dute.

Neurriari heltzeko unean, %47,8k beren lanaldia 18:00etan edo beranduago bukatzen zuten. Egun, ordutegi honi %22,4k eusten diote. Nabarmen handitu da egun 13:00ak eta 15:00rak artean bukatzen duten pertsonen kopurua.

Interesgarria da ondoko taulan neurriari heltzeko unean lanaldia bukatzeko ordutegien banaketa egiaztatzea; bertan ikusten da 15:00rak arte %21,1ek baino ez zutela lan egiten, eta %64,9k 17:00etan edo beranduago bukatzen zutela.

Lanaldia bukatzeko ordua. Aurretik. Urteen arabera (G%)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
12:00ak edo lehenago	2,7	0,0	2,2	0,8	2,3	1,0	1,7	1,1	1,4
12:00etatik 13:00era	0,0	3,2	2,2	6,0	2,3	3,0	2,1	2,9	2,8
13:00etik 14:00etara	8,0	3,2	6,7	8,3	3,8	5,5	6,3	3,6	5,4
14:00etatik 15:00retara	17,3	10,5	5,6	13,5	10,7	12,1	9,2	13,2	11,5
15:00retatik 16:00retara	10,7	5,3	3,3	6,0	5,3	5,5	9,6	6,8	6,8
16:00retatik 17:00etara	12,0	5,3	3,3	4,5	7,6	6,0	7,1	9,6	7,2
17:00etatik 18:00etara	9,3	16,8	21,1	15,8	22,1	16,1	18,8	15,4	17,1
18:00ak edo beranduago	40,0	55,7	55,6	45,1	45,9	50,8	45,2	47,4	47,8
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Elkarrizketatuen gehiengoak honako lanpostuak zituen eta ditu:

	%Eskatzaileak		%Ezkontideak/bikotekideak	
	Neurri aurretik	Egun	Neurri aurretik	Egun
Administraria	18,5%	17,6%	6,6%	6,6%
Dendaria, kutzazaina, apalbetetzaila	15,9%	14,1%	3,5%	3,2%
Irakaslea	10,0%	9,9%	5,8%	5,8%
Teknikariak (delineatzaileak, informatikariak)	7,8%	7,5%	5,8%	5,8%
Langileak, hainbat langile	5,4%	4,6%	11,6%	11,2%
Erizaintza-laguntzaileak, geriatrikoko langilea	5,3%	5,2%		
Komertzialak/saltzaileak	4,6%	4,0%	9,5%	9,5%
Metalgintzako langileak (tornularia, fresatzailea)	4,3%	3,6%	10,1%	9,5%
Arduraduna	4,3%	3,6%	3,0%	2,8%
Funtzionarioa	4,1%	4,2%	3,4%	3,5%
Erizaina	3,7%	3,85		
Langabea		6,2%*	1,4%	3,0%
Hainbat profesional (ekonomialariak, abokatuak...)			6,8%	6,7%
Ingeniariak			5,7%	5,8%
Eraikuntzako lanbideak			8,2%	7,7%
Garraioa (gidariak, kamioilariak)			4,2%	4,1%
Enpresako gerente/zuzendariak			3,7%	3,5%
Medikuak			1,7%	1,7%

* Neurriari heltzean, langabezian ez zegoen onuradunen arteko inor.

Neurrii heldutako pertsonen artean ere nabaritu da krisi ekonomikoa, % 6,2 langabe neurrii heldutakoen eta egun desegite EEEak direla-eta langabezian daudenen artean.

Nabarmentzekoa da neurrii heldutako pertsonen ezkontide/bikotekideen lanbidearen kualifikazio handiagoa eta neurrien titularren artean gutxi ordezkaturiko beste lanbide batzuen ehunekoa. Ia bikoiztu egiten da hainbat profesionalen ehunekoa, ehuneko esanguratsuak dituzte ingeniaria, sendagilea, enpresa zuzendari/gerentea moduko lanbideek, handitu egiten dira modu esanguratsuan metalgintzako langile eta hainbat langile, komertzial/saltzaileen... ehunekoak. Kontuan hartuta neurrii heldutako ia gehienak emakumeak direla, nabarmen geratzen da

emakumeen (neurriei heldutako pertsonak) eta gizonen (heldutakoen ezkontide/bikotekideak) prestakuntza-, lan- eta ekonomia-kualifikazioaren arteko haustura honen egiturazko izaera. Kalkula daiteke neurriei heltzeak berak birsortu egiten duela emakumea beranduago sartzea jendartean eta lan-esparruan, eta horretan eragina duela.

6.3- Familien ezaugarriak

Pertsonen %96,9k bikotekidea edo ezkontidea zuten neurriei heltzeko unean, puntu bat baino zertxobait gehiago jaisten den ehunekoa, %95,1era, egun. Ezkontide/bikotekiderik gabeko pertsona gehienek 2007, 2008 eta 2009an heldu zieten neurriei.

Neurriei heldutako guraso bakarreko familia-nukleoen ehunekoak dira: neurriari heltzeko unean %3,1, egun %4,8. Datu hauek EAEko guraso bakarreko familien ehunekoarekin kontrastatzen dute, 2006an %21,8 izanda (seme-alabak zituzten guztirako bizikidetza-nukleoari dagokionez). Guraso bakarreko familia-nukleoen arduradunak lanean daudelako edo neurriei heltzeko bestelako ezintasunen bategatik, ordezkapen gutxiago dute neurriei heltzearen ondoriozko laguntzen onuradunen kolektiboan.

Familiak, neurriei heltzeko unean, seme-alaba batek osatzen zituen kasuen %65,8an, bik %28,9an eta hiruk edo gehiagok %5,2an.

BATEZ BESTEKO SEME-ALABAK	Batez besteko seme-alabak				Batez besteko seme-alabak familia-nukleoko EAEn (2006)
	ESZEDENTZIA	MURRIZKETA	KONTRATAZIOA	GUZTIRA	
Neurriari heldu aurretik	1,41	1,35	1,76	1,39	1,59
Egun	1,66	1,7	2,11	1,72	

Familia hauek berberak, egun, seme-alaba bat dute kasuen %36,8an, bi %54,4an eta hiru edo gehiago %8,7an.

Batez besteko seme-alaben datua neurriari heldu aurretik eta ondoren alderatuta, hazkuntza ikusten da, baita neurriari heldu ondoren EAEko familia-nukleoko seme-alaben batez bestekoa gainditu egiten dela ere (2006ko datua).

Familia hauen %4,1ek mendeko pertsonak zituzten beren kargu (%80k bat baino ez, %18,3k bi eta %1,7k lau -familia bat da lagin osotik). Egun, ez da aldaketa esanguratsurik egon zentzu honetan, ehunekoak horrela daude (aurrekoaren ordena berean): %4,2 eta %76,2, %22,2 eta %1,6.

Ehuneko txiki batek, %4,1ek, beste kide batzuk dituzte familia-nukleoan (gurasoak eta seme-alabak). Ahaidetasuna hauxe da: ezkontide/bikotekide baten gurasoak kasuen %63,3an, osaba-izebak %6,1ean eta aitona-amonak %4,1ean, anaia-arrebak %6,1ean eta bestelakoak %20,4an.

Neurriari heldutako pertsonaren hileko diru-sarrera garbiak 1.000 eta 2.000 euro artean zeuden kolektiboko %91,3rentzat. Eskatzaileen ia %30ek 1.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte, ez da ahaztu behar, zentzu honetan, eskatzaile gehienak emakumeak direla.

Laguntza eskatu duenaren hileko diru-sarrera garbiak. (Neurriari heltzeko unean). Urteen arabera

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	Guztira
1.000 eurotik behera	27,0	33,3	33,1	30,4	22,6	24,1	30,5	25,1	27,7
Dezente	6,1	7,7	30,0	8,7
Asko	5,9	7,8	11,0	7,5
Ez dagokio	31,3	29,5	10,0	28,7
Guztira	100	100	100	100

Etxetik lanera joateko gehiegizko denbora	Zein neurri mota gozatu zenuen edo ari zara gozaten? ¿Qué tipo de medida de conciliación disfrutó ó disfruta?			
	Eszedentzia	Lanaldi- murrizketa	Zaintzaile kontratazioa	Guztira
Batere	51,5	50,8	43,0	50,5
Gutxi	18,5	28,2	37,0	26,3
Dezente	10,9	9,6	11,0	10,0
Asko	8,9	7,6	7,0	7,9
Ez dagokio	10,2	3,8	2,0	5,2
Guztira	100	100	100	100

Familia eta lana bateragarri egiteko neurriei heltzen dion gizon-kopuru eskasa egiaztatuta, elkarrizketatuei galdetu zaie zein beste neurri har daitekeen gizonen ere neurrioi hel diezaieten sustatzeko, honela beste oztopo batzuk identifika baitaitezke.

Bi dira hori neurri handiagoan lortzeko aurkituriko faktore erabakigarriak: ekonomikoa eta heziketa/aldaketa kulturala.

Familia eta lana bateragarri egiteko oztopo gisa, hurrengoak nabarmentzen dira elkarrizketatuen iritziak aztertu ondoren:

- Emakumeen soldata txikiagoa, soldaten parekotasuna edo emakumeentzako soldata handiagoa ere nahitaezkoztat jotzen dira egungo egoerari buelta emateko.
- Nagusi den kultura patriarkala eta berdintasunean oinarrituriko hezkuntza eza, jendartearen pentsamoldea eta egungo balio sozialak aldatu egin behar dira, emakumeengan zein gizonengan.
- Pizgarri ekonomiko eta laguntza eza, laguntza ekonomiko gehiago eta hobeak behar dira.
- Honi dagokion enpresa-kontzientzia eskasa.
- Ordutegi-malgutasun eza enpresetan.

- Informazio urria
- Legerian betebeharrekoa ez izatea, gizonek neurriei hel diezaieten.

Eranskin batean, elkarrizketatuek gai hau sustatzeko har daitezkeen beste neurri batzuen inguruan egindako ekarpenak/iruzkinak jasotzen dira, eta hortik ondorioztatzen da goian adierazitakoa.

Laguntza ekonomikoen garrantziaren gaiari berriz helduta, elkarrizketatuek uste dute Eusko Jaurlaritzaren laguntzaren zenbatekoa oso garrantzitsua/erabakigarria dela neurriei heltzeko orduan, %26,8ren ustez, %37,8k uste dute ez dela oso erabakigarria eta %34,2ren iritziz, aldiz, ez da garrantzitsua/erabakigarria, eszedentziari heldutakoaren %45,3ren ustez. Eusko Jaurlaritzaren laguntzen garrantzia adierazten dutenen pertsonak diote Administrazioaren ekimen hau garrantzitsua dela, batik bat enpresaren aurrean neurria exijitzeko dagoen eskubidearekiko konfiantza sendotzen duen heinean. Laguntzak, neurria hedatzen eta ezagutzera ematen laguntzen du.

Erantsitako taulan, datu hauek hartutako neurriaren arabera aurkezten dira.

EJren laguntzaren zenbatekoa, garrantzitsua/erabakigarria da neurriei heltzeko?	Zein neurri mota gozatu zenuen edo ari zara gozaten?			
	Eszedentzia	Lanaldi-murrizketa	Zaintzaile kontratazioa	Guztira
Ez	45,3	30,4	31,0	34,2
Bai, baina gutxi	31,2	40,1	39,0	37,8
Bai, oso	21,7	28,7	26,0	26,8
Berdin da	1,8	0,8	4,0	1,3
Guztira	100	100	100	100

6.11- Enpresen jarrera familia eta lana bateragarri egiteko neurrien aurrean

Neurrien aurreko enpresen jarrerak garrantzi handia du lana eta familia bateragarri egiteko helburua lortzeko.

Neurriei heldutako elkarrizketaturikoen esperientziaren arabera, ikusten da enpresen %54,9k asko edo nahiko lagundu dutela neurri hauen ezarpen edo garapenean. Aitzitik, enpresen %45,1ek gutxi egin dute edo ez dute egin (mota honetako enpresa batzuen jarreraren inguruan hitz egin da aurreko ataletan).

Zein neurritan lagundu du zure enpresak/administrazio-sailak EJK sustaturiko neurri hauen ezarpen eta garapenean?	Gozatu duen edo gozatzten ari den neurri mota									
	Eszedentzia			Lanaldi-murrizketa			KONTRATAZIOA			Guztira
	Emak.	Giz.	Guztira	Emak.	Giz.	Guztira	Emak.	Giz.	Guztira	
Batere	25,3	22,2	24,6	22,6	20,4	22,4	29,5	32,4	30,5	23,4
Gutxi	21,6	20,0	21,2	21,9	18,5	21,5	23,0	29,4	25,3	21,7
Nahiko	38,7	38,9	38,7	39,4	42,6	39,7	34,4	20,6	29,5	38,8
Asko	14,4	18,9	15,4	16,2	18,5	16,4	13,1	17,6	14,7	16,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa baten aurrean, enpresaren jarrera izan da beste langile bat kontratatzea lanpostu hori estaltzeko, kasuen %52,8an, %68,7an eszedentzien kasuan.

Zure enpresak beste langile bat kontratatuz estali zuen zure eszedentzia edo lanaldi-murrizketa?	Gozatu duen edo gozatzten ari den neurri mota						
	Eszedentzia			Lanaldi-murrizketa			Guztira
	Emak.	Giz.	Guztira	Emak.	Giz.	Guztira	
Bai	73,6	52,3	68,7	47,8	41,9	47,2	52,8
Ez	26,4	47,7	31,3	52,2	58,1	52,8	47,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100

Enpresa gehienetan, %56,9k uste dute egongo litzatekeela beste neurri batzuk hartzeko aukera, esaterako, ordutegi-malgutasuna, etxetik lan egitea, oporraldiak seme-alaben oporraldiei egokitzea... eta, hain zuzen, zenbait enpresatan abian dira.



Zure lan motaren arabera, zure enpresan/administrazio-sailean izan daitezke beste neurri batzuk?	Gozatu duen edo gozaten ari den neurri mota		
	Eszedentzia	Lanaldi-murrizketa	Guztira
Bai	59,7	55,2	56,9
Ez	40,3	44,8	43,1
Guztira	100	100	100

Beste enpresa batzuetan abian ez jartzeko arrazoiak, elkarrizketatuen iritzien arabera, aspektu hauetan laburbil daitezke:

- Ohitura/kontserbadorismoa, aldaketarako tradizio eskasa.
- Arrazoi ekonomikoak, kostu erantsiak edo etekin ekonomikorik eza.
- Erosotasuna.
- Enpresaren tamaina.
- Interes eza.
- Zailtasun handia.
- Planteamendu eza.
- Enpresaren tamaina txikia.
- Langileen arazoak kontuan ez hartzea.
- Jardueraren ezaugarriek eragozten dute.
- Legerian betebeharrekoa ez izatea.

6.12- Onuradunek neurriei heltzearen ondorioz hautemandako balorazio soziala.

Neurriei heldutako pertsonen artean azterturiko esparruei buruz, egindako balorazioa da neurrien aurreko arazo eta aurreiritzi gehienak lan-esparruan daudela (gaizki-oso gaizki-hala-moduz balorazio artean %36,8ra heltzen da), aurretik txosten honetako beste puntu batzuetan adierazitakoa berretsita.

Nola uste duzu baloratu dutela zure lan-ingurunean neurriei heltzeko hartu duzun erabakia?	Sexua		Guztira
	Emak.	Giz.	
Oso gaizki	5,2	3,4	5,0
Gaizki	6,6	3,8	6,2
Hala-moduz	16,7	8,9	15,6
Ondo	41,4	47,2	42,2
Oso ondo	24,3	23,8	24,3
Berdin zaie	5,7	12,8	6,7
Guztira	100	100	100

Familian, %97,6k oso ondo edo ondo baloratzen dute neurriari heltzeko erabakia

Nola uste duzu baloratu dutela zure familian neurriei heltzeko hartu duzun erabakia?	Sexua		Guztira
	Emak.	Giz.	
Oso gaizki	0,2	-	0,2
Gaizki	0,1	0,4	0,2
Hala-moduz	0,7	0,9	0,8
Ondo	27,1	33,8	28,1
Oso ondo	70,7	62,8	69,5
Berdin zaie	1,1	2,1	1,3
Guztira	100	100	100

Lagunartean, hala-moduz baloratzen dute %34,6k, eta gaizki %1,3k.

Nola uste duzu baloratu dutela zure lagunartean neurriei heltzeko hartu duzun erabakia?	Sexua		Guztira
	Emak.	Giz.	
Oso gaizki	0,1		0,1
Gaizki	1,1	1,7	1,2
Hala-moduz	33,7	40,0	34,6
Ondo	57,8	49,4	56,6
Oso ondo	7,4	8,9	7,6
Berdin zaie	0,1	-	0,1
Guztira	100	100	100

Auzotarren artean, berdin zaie aukera da nagusi, %69,7k diote hori, eta %29,1ek, aldiz, positiboki baloratzen dute.

Nola uste duzu baloratu dutela zure auzotarrek neurriei heltzeko hartu duzun erabakia?	Sexua		Guztira
	Emak.	Giz.	
Oso gaizki	0,1	-	0,1
Gaizki	0,3	0,9	0,4
Hala-moduz	0,6	1,3	0,7
Ondo	12,1	18,9	13,1
Oso ondo	16,6	12,9	16,0
Berdin zaie	70,4	66,1	69,7
Guztira	100	100	100

6.13- Lana eta familia bateragarri egiteko izan daitezkeen neurriak eta horiei dagokienez hautemandako bideragarritasuna.

Elkarrizketatuen esperientziaren arabera, familia eta lana bateragarri egiteko proposaturiko neurriak hauek dira:

PROPOSATURIKO NEURRIAK	Proposatzen duten elkarrizketatuen %	Beren enpresan bideragarri dela uste duten elkarrizketatuen %
Lana etxetik egitea	20,9	13,4
Ordutegi-malgutasuna	60,2	37,1
Oporraldiak seme-alaben oporraldiei egokitzea (malgutasuna)	39,7	23,4
Lanaldi jarraitua/intentsiboa	40,4	24,8
Orduen bankua	20,6	11,4
Lan-aste trinkotua	14,5	8,0
Lanaldi partekatua (lan bat bi lagunek egitea, bakoitza lanaldi erdiz)	17,8	10,3
Lanpostuaren lekualdaketa	10,3	6,3
Mugikortasun geografikoa (badagokio)	10,9	6,6
Zerbitzu soziokomunitarioen eskaintza gehitzea	15,9	9,1
ED/EE	21,0	-
Jada enpresan gozatzen ditudanen bestelakorik ez	21,7	-

Azterturiko kolektiboan, kontuan gehien harturiko neurriak ordutegi-malgutasuna (%60,2), lanaldi jarraitu/intentsiboa (%40,4) eta oporraldien egokitzapena (%39,7) dira.

Era berean, jarraiki, hitzez hitz agertzen dira izan daitezkeen neurri edo gaiak, familia eta lana bateragarri egiteari dagokionez, elkarrizketatuek galdera irekiari erantzunda:

- “Lana eta eskola-ordutegiaren egokitzapena”

- “Eskolaz kanpoko jarduerak udan eta oporretan (hiriko jolasguneak, kanpamentuak...)”
- “Hurtzaindegiak lantokietan, enpresa-guneetan, merkataritza-zentroetan...”
- “Eszedentzia eta lanaldi-murrizketei heltzeko haurren adin muga handitu (10, 12, 14 edo gehiagora)”
- “Oporraldiak hautatzeko aukera”
- “Ordutegi-malgutasuna hainbat mailatan”
- “Amatasun-baja urtebeterra luzatu”
- “Lanaldi-murrizketa moten aukerak gehitu”
- “Neurriek iraun bitartean, %100 kotizatu gizarte-segurantzari ondorio guztietarako (erretiroa...)”
- “Laguntzak enpresei laguntza-kontratuak egiteko, neurriek iraun bitartean”
- “Araudia egokitu seme-alabak jarraian direnean”
- “Baimenak/malgutasuna pediatrarenera joateko, seme-alabak gaixo daudelako, irakasleekin harremanetarako.”
- “Emakume eta gizonen soldatak parekatu”
- “Lan-ordutegia: 8:00etatik 15:00etara edo 9:00etatik 17:00etara”
- “Laguntza ekonomiko gehiago eta handiagoak”
- “Pertsonen kontratazioa murrizketa eta eszedentzia estaltzeko”
- “Aldi laburretarako eszedentzia”
- “Autonomoen tasen murrizketa neurriak iraun bitartean”
- “Enpresei diruz lagundu malgutasun-kostuak”
- “Laguntza/diru-laguntzen ordainketa arindu”
- “Aldi baterako langileekiko diskriminazioa desagerrarazi”
- “Enpresak legea betetzera behartu, errepresalia eta desberdintasunik barik”
- “Langile eta enpresei zuzendutako informazio-kanpaina”
- “Neurriak eskatzeko gizonen betebeharra”
- “Enpresak diruz lagundu langileei oztoporik ez jartzeko”
- “Laguntza/diru-laguntzen zenbateko handiagoa”
- “Laguntza ekonomiko gehiago”
- “Hurtzaindegi eta zerbitzu soziokomunitario gehiago”
- “Eusko Jaurlaritzaren Bulegoa langileen aholkularitzarako”
- “Diru-laguntzen denbora-iraupena luzatu”
- “Ordutegi-egokitzapena bikotekideen artean”

- “Enpresen gaineko Administrazioaren kontrol handiagoa neurriak bete ditzaten eta gehiegikeriak ekiditeko”

Eranskinean, xehatuta dago honi dagokionez adierazitakoen eta egindako proposamenen taula.

Elkarrizketatuen iruzkinak ikusita, nabarmena da haurtzaindegien eskaintza ez dela nahikoa, eskola eta lan-ordutegiaren egokitzapen eza eta medikuarenera joan beharra arazo serioa direla familia askorentzat eta, oporraldietan, oreka eza gertatzen dela familietan denboraren antolaketari dagokionez.

Neurrien egungo adin mugak zurrunezi edo eskasegiztat jotzen dira, iradokizun gehienek diote seme-alabaren adina 12 urtera igo behar dela eszedentzia eta lanaldi-murrizketen kasuan. Amatasun-bajen kasuan, urtebetera luzatu beharra dagoela diote.

Bestetik, enpresentzako laguntzak eskatzen dira enpresok neurriei heltzea ahalbidetzeko eta, aldi berean, enpresen gaineko kontrol handiagoa exijitzen da, enpresok egungo araudia bete dezaten eta neurriei heldutako langileekiko errepresaliarik ez dadin egon.

Beste kontu bat da elkarrizketatuek uste duten beren enpresa edo lan-jardueran bideragarri izan daitezkeen; aurretik egiaztatu da elkarrizketatuek proposaturiko neurri gehienetan zertxobait murrizten dela bideragarri direla uste dutenen ehunekoa.

Osotara, elkarrizketatuen %56,9k uste dute proposaturiko neurrietariko batzuk badirela bideragarriak beren lantokietan, batik bat Administrazioan/enpresa publikoetan, %67,9k uste dute hori.

Zure lan motaren arabera, bideragarriak dira zure enpresa/administrazioan?	Enpresa mota		
	Administrazioa /Publikoa	Pribatua	Guztira
Bai	67,9	54,1	56,9
Ez	32,1	45,9	43,1
Guztira	100	100	100

Jarduera-sektorea	Zure lan motaren arabera, bideragarriak dira zure enpresa/administrazioan?		
	Bai	Ez	Guztira

Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basozaintza	66,7	33,3	100
Arrantza	66,7	33,3	100
Erauzketa-industriak	76,9	23,1	100
Produktu energetikoen erauzketa	66,7	33,3	100
Beste mineral batzuen erauzketa		100,0	100
Manufakturatze-industria	28,6	71,4	100
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	40,6	59,4	100
Oihalgintza eta joskintza	66,7	33,3	100
Larru eta oinetakoen industria	100,0	-	100
Zur eta kortxoaren industria	69,2	30,8	100
Paperaren industria: txartel grafikoaren edizioa	52,9	47,1	100
Petrolioaren finketa eta erregaien tratamendua	83,3	16,7	100
Industria kimikoa	57,1	42,9	100
Kautxu eraldaketaren industria	80,0	20,0	100
Bestelako produktu ez metalikoen industriak	-	100,0	100
Metalgintza eta produktu metalikoen fabrikazioa	65,4	34,6	100
Makineria-erakuntzaren industria	53,3	46,7	100
Material eta ekipo elektronikoen industria. Elektronika	55,6	44,4	100
Garraio-materialaren fabrikazioa	66,7	33,3	100
Hainbat manufakturatze-industria	50,0	50,0	100
Elektrizitate, gas eta ur ekoizpen eta banaketa	36,4	63,6	100
Eraikuntza	46,4	53,6	100
Ibilgailuen merkataritza, konponketa	48,0	52,0	100
Ostalaritza	51,7	48,3	100
Garraioa, biltegiatzea eta komunikazioak	57,1	42,9	100
Finantza-bitartekaritza	68,8	31,3	100
Higiezin eta alokairuzko jarduerak	50,0	50,0	100
Herri administrazioa, defentsa eta gizarte-segurantzak	72,6	27,4	100
Hezkuntza	56,7	43,3	100
Osasungintza eta albaitaritza	65,4	34,6	100
Bestelako gizarte-jarduerak eta emandako zerbitzuetakoak	54,9	45,1	100
Lurraldez gaindiko erakundeak	100,0	-	100
Guztira	56,9	43,1	100



7. LABURPENA ETA ONDORIOAK

Egun indarrean dauden neurrien artean, Eusko Jaurlaritzak laguntzak emanda, alde handiarekin gehien erabiltzen dena lanaldi-murrizketa da, eskatutako laguntzen %72,9 neurri honi doakio, eszedentziei, berriz, %26,4.

Laguntzak hasi zirenetik, 2002tik, pixkanakako gehikuntza gertatu da urtetik urtera, 2007an izan ezik, urte hartan araudia aldatu baitzen eta, ondorioz, laguntza eskatzeko prozedura, laguntza-programaren deialdian atzerapena ekarri zuena.

2008 eta 2009an, berriz hasi ziren laguntzak modu garrantzitsuan gehitzen. 2007tik aurrera, zaintzaileak kontratatzekeo laguntza erantsi zen.

Neurri hauek gizon zein emakumeei zuzenduak badaude ere, osotara, urte hauetan zehar, eskatzaileen %94,5 emakumeak izan dira, gizonak, berriz, %5,5 eskasa. Eszedentzia eskatu dutenetatik %96,9 emakumeak izan dira, lanaldi-murrizketa eskatu dutenetatik %93,8 eta kontratazioa eskatu dutenetatik %65,1.

Zaintzaileen kontrataziorako neurria erantsi izana salbuetsita (gizonen-kopurua handitzen duena), 2007tik aurrera, emakume eta gizon eskatzaileen ehunekoak oso antzeko maileri eutsi die, %95 bat emakumeei dagokienez eta %5 gizonei dagokienez.

Urte hauetan zehar, joera hau ez da modu esanguratsuan aldatu, eta emakumeek "pilatu" egiten dituzte neurrientzako laguntzak, beraz, seme-alaben zaintzaren zatirik handiena, ez denean osoa, beren erantzukizuna da.

Eszedentziarako erabilitako batez besteko denbora 832,65 egunekoa da, seme-alabak zaintzeko, eta murrizketaren batez besteko denbora 1.239,44 egunetan dago zenbatuta.

Neurri hauei heldutako pertsonen batez besteko adina 34,6 urtekoa da (gutxienez 20 urte eta gehienez 59 urte tarte artean). Emakumeen artean, batez besteko adina 34,2 urtekoa da eta gizonena 37 urtekoa. Denbora-epe honetan zehar (2002tik 2009ra), ez da alde esanguratsurik gertatu aspektu honetan.

Neurriei heldutako elkarrizketaturikoen prestakuntza-maila altua da, %46,5ek unibertsitateko ikasketak daukate, %43,1ek batxilergoa/LH2 egin dute, %9,7k lehen mailako ikasketak dituzte (OH0/LH1) eta %0,7k ez dute ikasketarik.

Neurriari heldu zioten denbora-epean, %16,1ek baliatu zuten denbora hori beren prestakuntza areagotzeko. Lanaldi-murrizketari heldutakoak dira prestakuntza hori neurri handiagoan egin dutenak (%17,2), eszedentziari heldu ziotenak %13,5 izan dira.

%20,2k Administrazioan edo enpresa publikoan egiten zuten lan, eta %79,8k, berriz, enpresa pribatuan.

Neurriei heldu zieten lan egiten zuten enpresen ezaugarriak honakoak dira: 250 langile baino gehiagokoak (%36,8) edo 25 langile baino gutxiagokoak (%30,5). Nagusiki jarduera hauetan ardaztuak: gizarte eta zerbitzu-jarduerak (%25,3), merkataritza/ibilgailuen konponketa (518), hezkuntza (%9,5), osasungintza (%9,1), herri administrazioa/defentsa eta gizarte-segurantza (%6,6) eta metalgintza eta produktu metalikoen fabrikazioa (%5,9). Herrialdean bertan zuten lanpostua Arabakoan %91,4k, Bizkaikoan %96,6k eta Gipuzkoako %95,3k.

%91,1ek kontratu finkoa zuten, %8 aldi baterako langileak ziren eta %0,9k kontratu etena zuten. Kontratu motari dagokionez, %89,4k lanaldi osokoa zuten, %10,6k lanaldi partzialekoa.

Egoera hau oso gutxi bilakatu da orain arte, kontratu motari dagokionez; etenetan igoera txikia izan da (%1,4), lanaldi partzialeko kontratuak, aldiz, jaitsiera nabarmena izan du (%78,1), ia 11 puntu gutxiago, lanaldi partzialeko kontratuak neurri berean gehituta.

Funtsean emakumeak izan dira lanaldi osoko kontratu bat izatetik lanaldi partzialekoa izatera igaro direnak, bikoiztu egin da egun lanaldi partzialeko kontratu bat duten emakumeen ehunekoa (%23,8).

Lanaldi motan ere lotura esanguratsua ikusten da kontratu motan sorturiko aldaketekin, nabarmen igo da lanaldi jarraitua duten pertsonen kopurua (%31,4tik %58,7ra igaro da), eta lanaldi zatituak jaitsi egin dira (%46,7tik %23ra) eta txandakakoak (%21,9tik %18,3ra).



Neurriari heltzeko unean, %47,8k 18:00etan edo beranduago bukatzen zuten lanaldia. Egun, ordutegi hau oraindik %22,4k dute. Nabarmen igo da egun lanaldia 13:00ak eta 15:00rak artean bukatzen dutenen ehunekoa.

Nabarmenezkoa da neurriari heldutako pertsonen bikotekideen prestakuntza handiagoa, eta neurrien zuzeneko onuradunen artean gutxi ordezkaturiko beste lanbide batzuen igoera, ia bikoiztu egiten da (zuzeneko onuradunei dagokienez) hainbat profesionalen ehunekoa, modu esanguratsuan agertzen dira ingeniariak, sendagileak eta enpresen gerente/zuzendariak, nabarmen igotzen dira metalgintzako langileen eta hainbat langileren, komertzial/saltzaileen... ehunekoak.

Familia, neurriari heltzeko unean, seme-alaba batek osatzen zuen kasuen %65,8an, bi seme-alabek %28,9an eta hiruk edo gehiagok %5,2an.

Familia hauek berberak, egun, honela daude: %36,8k seme-alaba bat dute, %54,4k bi seme-alaba eta %8,7k hiru edo gehiago.

Neurriari heldutako pertsonaren hileko diru-sarrera garbiak 1.000 eta 2.000 euro baino gutxiagokoak ziren kolektiboaren %91,3rentzat.

Neurriari heltzeko unean, elkarrizketatuen %45 1.100 eta 1.500 euro arteko diru-sarreraren tartean zegoen; egun, %45,6 justu azpiko tartean daude, "1.000 euro baino gutxiago" tartean, alegia.

Laguntzei heldutako pertsonen ehuneko garrantzitsu baten diru-sarreraren murrizketak zuzeneko lotura du neurria bukatu edo bukatu ez izanarekin.

Neurriari heltzeak norberaren diru-sarreraren kalte garrantzitsua dakar, kasu askotan hainbat urtez irauten duena.

Familien %86k 1.600 eta 4.000 euro arteko hileko diru-sarrerak zituzten neurriari heldu ziotenean.

Familia-unitatearen diru-sarreraren murrizketa, neurriari heltzearen ondorioz, nabarmena izan arren, familien gehiengoak 1.600 euro baino gehiagoko hileko diru-sarrerak ditu, diru-sarreraren



batez bestekoa hileko 2.100 eta 3.000 euro artean egonda; EAEko familien batez besteko errentan daude diru-sarrera horiek.

Zaintzaileak kontratatzeko laguntzari heldutako pertsonen diru-sarrera maila, beste bi kolektiboena (eszedentziari eta murrizketari heldutakoak) baino handiagoa da, eta horrek ekar dezake haien lan-maila ere altuagoa izatea.

Neurriei heldu aurretik, familien heren batean, haur/mendekoen zaintza bikotekide bien artean egiten zen, beste heren batean neurriari heldutako lagunak egiten zuen (funtsean emakumeak), %19,7an neurriari heldutakoak egiten zuen, baina ardura beste pertsona edo zerbitzu batekin partekatuta (senide/hurtzaindegi/zaintzailea).

Neurriak iraun bitartean, %43,2k neurriari heldutako pertsonak egiten du, eta ezin dugu ahaztu ia beti emakumea dela, bikotekide bien artean familien %25,5ean banatzen da, eta beste %25,4an neurriari heldutakoak beste pertsona edo zerbitzu baten laguntzarekin. Neurriari heldutako gizonen %8,5ek, eginkizun hau hurtzaindegiaren edo haurrak zaintzeko kontraturiko beste pertsona baten esku uzten dute (emakumeen kasuan, ehuneko hau %2,9koa da).

Neurri ostean, %27,6an neurriari heldu zion pertsonak egiten du, bikotekide bien artean banatuta familien %37,9an egiten da, eta %26,1ean neurriari heldu zionak beste pertsona edo zerbitzu baten laguntzarekin.

Aldaketarik esanguratsuen, neurri aurretik eta ostean, portzentajezko ia bost punturen igoeran dago, lana bikotekide bien artean banatzeari dagokionez.

Kalkula daiteke familia hauetako gizonen ehuneko txiki batek (%5ek gutxi gorabehera), neurriari heldu aurretik haurren zaintza partekatzen zuten bikoteen heren hori handitzen duela. Neurriak bultzatu egiten du erantzukidetasuna.

Familiartean elikaduraz arduratzeko erantzukizuna, neurriari heldu aurretik, bikotekide bien artean banatzen da familien %35,2an, neurriak iraun bitartean %27,1ean, eta neurri ostean %37,9ra igotzen da.



Neurriari heldutako pertsona (nagusiki emakumea) garbiketa eta arropaz arduratzen da, neurri aurretik familien %49,6an, bitartean %54an eta ostean %45,2an. Bikotekide bien artean etxeen heren batean banatzen da, nahiz eta ehuneko hori %28,2ra jaitsi neurriak iraun bitartean.

Etxeko lan honetarako pertsonak etxeen %5-7 bitartean kontratatzen dira.

Ekonomia familiarraren ardura, neurri aurretik/bitartean/ostean, etxeen %50ean baino gehiagotan bikotekide biek betetzen dute. Etxeen ia heren batean, neurriari heldu dion pertsonaren ardura da (emakumeak) eta nabarmentzekoa da ardura honen portzentajezko hiru puntuko igoera gertatzen dela (aurretik eta ostean artean) neurriari heldutako emakumeen kolektiboan.

Gestio familiarrak bikotekide biek etxeen %52,3an egiten dituzte, neurriari heldu aurretik, %49,6an bitartean eta %47,8an ostean, neurriak ahalduntzea bultzatzen du.

Neurriari heldutako pertsonak lan hauek etxeen %28,4an egiten ditu, %31,5ean bitartean eta %32an bukatutakoan. Esparru honetan, berriz ere, erantzukizuna bere gain bakarrik hartzen duten emakumeen ehunekoak igo egiten da (%4).

Bestetik, familien %17an erantzukizun hau gizonak dutela esan daiteke.

Oporrak antolatzeari dagokionez, bikotekide biek egiten dute etxeen bi herenetan baino gehiagotan, nahiz eta apur bat jaisten den neurri aurretik (%70,2) neurri ostera (%66,6).

Neurriari heldutako pertsonak, hau da, emakumeek gehienbat, etxeen %23an gutxi gorabehera eusten diote erantzukizun honi.

Ondoriozta daiteke, honi dagokionez, lagun bat neurriari helduta duten familietan etxeko lanak, haurrak eta mendekoak zaindu, elikaduraz eta garbiketaz arduratu, esaterako, gehienbat emakumeen gain uzten direla, nahiz eta etxeen heren batean eginkizun hauek bikotekide bien artean banatu.

Ekonomia familiarrarekin lotutako ardurei dagokionez, gestio familiarrak eta oporren antolaketa etxeen erdietan bikotekide biek egiten dituzte, %30ean gutxi gorabehera egiten du emakumeak. Familien %12-17 artean, gizonak dira argi eta garbi horien arduradunak.



Neurriak bukatutakoan, igoera txiki bat gertatzen da neurri aurretik gizonek edo partekatuta betetzen zituzten erantzukizunak bere gain hartutako emakumeak (neurriari heldutako pertsonak) dituzten familien ehunekoan.

Neurriari heldutako pertsonen %74,5ek uste dute bikotekide biek antzeko lanaldiko soldatapeko lanak dituzten familietan, bien artean banatu behar direla etxeko lanak eta seme-alaben zaintza.

%89,2k uste dute bikotekide batek soldatapeko lan gutxiago egin behar izanez gero, etxeko lanez eta haurren zaintzaz bietariko edozein arduratu behar dela, beste faktore batzuen arabera baino ez erabakita, esaterako, soldata txikiagoa edo lan prekarioagoa.

Esanguratsua da emakumeen %10,8k nahiago izatea emakumea arduratzea eginkizun hauetaz.

Enpresek familia eta lana bateratzea ahalbidetzeko neurriak hartzeko ardura neurriari heldutako pertsonen %58,5ek egozten diete agintari/administrazioari. %35,4k uste dute agintariak zein langileak beren enpresekin izan behar direla.

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako eta legeriak arauturiko neurriak alde batera utzita, neurriari heldutako pertsonen %18,5ek ziurtatzen dute beren enpresetan badaudela familia eta lana bateragarri egiteko beste neurri batzuk, eta pertsona hauen %59,7k erabiltzen dituzte.

Neurriok honakoak dira:

- *Ordutegi-malgutasuna*
- *Amatasun-baja luzeagoa, edoskitzeko astebete gehiago (urtebetera arte luzagarria)*
- *50€ haurrek 3 urte bete arte*
- *Asteburuetan baino ez egitea lan*
- *Murrizketa pilatu eta eskola-oporraldietan hartu*
- *Hautzaindegirako laguntza eta erraztasuna ordutegiak egokitasunaren arabera hautatzeko*
- *Bi hileko laguntza enpresaren aldetik*
- *Laguntza ekonomikoa seme-alaben ikasketetarako (kasuren batean 8 urtera bitartean)*
- *Lanaldi-murrizketa: urte gehiagoz, lehen urtebetean soldata murriztu barik*
- *Orduen bankua*



- *Murrizketan haurrak 12 urte bete arte jarraitu*
- *Egun trinkotuak*
- *Eskola-liburuaren ordainketa*
- *Lanaldi jarraitua*
- *Etiket lan egitea eta ordutegi-malgutasuna*
- *Ordu libreak eta motibazio ekonomikoa*
- *Etiket hurbilerako lekualdaketa*
- *Bi hileko eszedentzia laguntza ekonomikoa eta hilabeteko soldatarekin*
- *Jaiotze aurretiko baimenak*
- *Hitzarmen bidezko %50eko murrizketa*
- *Zortzirenaren lanaldi-murrizketa*
- *Murrizketa haurrak 10 urte bete arte*
- *Soldata osoko ordutegirik gabeko lana haurraren lehen urtebetean zehar*

Gehien errepikatzen diren neurriak ordutegi-malgutasuna, lanaldi jarraitua eta lanaldi-murrizketa dira, hainbat aukera/modalitatetan.

Neurriei heldutako eta beren enpresetan badaudela bestelako neurriak ziurtatzen duten pertsonen %31,5ek Administrazioan edo enpresa publikoetan egiten dute lan, %69,5ek, berriz, enpresa pribatuan.

Zerbitzuak, herri administrazioa, merkataritza, hezkuntza, osasungintza eta metalgintzak pilatzen dute neurri gehien dituzten sektoreen %78,3.

Lanerako hipotesi gisa, egoera honen azalpen bat izan daiteke jardura mota batzuetan (zerbitzuak eta merkataritza, kasu) errazagoa dela bateragarri egiteko neurriak lan-metodoei egokitzea, produktibitateari kalterik eragin barik, eta beste sektore batzuetan sindikatuak egoteak eragina duela hitzarmenen negoziazioan. Bestetik, euskal ekoizpen-ehunean gizarte-ekonomiaren (kooperatibak eta LSAk) ezarpen handiak ere eragina izan dezake.

Zalantzarik gabe eraginik baduena enpresaren neurria da, familia eta lana bateragarri egiteko neurri zehatzak dituzten enpresen %55,2k 250 langile baino gehiago ditu.

Ezinbesteko kasuak alde batera utzita, esaterako, guraso bakarreko familiak, ezkontideetarik baten gaixotasun larria... eta biek eskatu eta txandakatuz ibili direnen kasu bakanak ere bai, normalean neurriei heltzen dietenak emakumeak izateko adierazitako arazoak honako aspektuetan laburbil daitezke:



▪ Ekonomiko-Laneko-Materialak

- Faktore ekonomikoa (soldata txikiagoa).
- Enpresak neurriari heltzeko emandako erraztasunak.
- Kontratu mota, prekarietate handiagoko lana duen ezkontideak edo alderantziz.
- Lan-baldintzak (ordutegiak, lantokirako distantziak...).
- Enpresaren egoera prekario/zaila (EEEk...).

▪ Genero faktorea

- Edoskitzaroa.
- Amatasun-sena (nahiago dute emakumeak izatea, emakumeak izan behar direla berez ulertzen dute, beren “amatasuna” bizitzeko gogoia dute).
- Zaintzarako gaitasun/sen eskusiboa (emakume batzuen artean).

▪ Gizarte-konbentzionalismoak

- Gizon batzuek uste dute beren gizarte-ingurunean gaizki ikusita dagoela gizonak izatea neurriei heltzen dietenak.
- Emakume batzuek argi dute eurak izan behar direla, ez diote planteatzen bere buruari beren bikotekideak izatea.

Adierazitako arrazoi gehienak aspektu ekonomiko/laneko/materialen eta genero-faktorearen arteko konbinazio bat dira, baina horrek ez du alde batera uzten ustez logikoak edo praktikoak diren irizpide hauen atzean, kasu askotan, gizarte-konbentzionalismoak egotea, gutxiengo batek baino ez dituenak zuzenean esaten.

Emakumeen erantzun ugaritan, esplizituki esaten da edo hauteman egiten da amatasun-sen eskusibista dela nagusi (seme-alabak eurenak dira eta lehentasuna dute beraiez gozatzeko eta haiek zaintzeko).

Neurri desberdinei heldutako pertsonen artean informazioa biltzerakoan kontuan hartutako beste funtsezko aspektu bat neurriei heltzeko erabakia hartzeko **arrazoiak edo zioak** izan dira.

Zentzu honetan, erantzunak seme-alabak artatzeko/zaintzeko beharrea laburbiltzen dira, baina hainbat ñabardurarekin, kasu askotan familiaren laguntza edo haurtzaindegi-zerbitzu ezagatik,



faktore ekonomikoengatik (ezin edo merezi ez zaintzaile bat kontratatzea), faktore afektibo/amatasunezkoak (seme-alabekin egoteko nahia), haurtzaindegietara jotzeko nahi eza, familiakoak ez direnek haurrak zaintzeko errezeloa...

Adierazitako arrazoiak multzokatu egin badira ere, eta berriz esanda gehien-gehienek haurrak zaintzeko beharrari erreparatzen diotela. Elkarrizketatuek bateragarri egiteko neurriei heltzeko adierazitako arrazoiak (bateragarri egiteko neurri motaren arabera), eranskinetan azaltzen dira.

Faktore ekonomikoa (diru-sarrera gutxiago familia-unitatearentzat) ez da erabakigarria bateragarri egiteko neurri bati heltzeko orduan. Neurri horiei heltzearen ondoriozko diru-sarrera murrizketa gutxi (3-4 balorazioak) eta dezente (5-6 balorazioak) baldintzatzen du neurriaren egoera jarraitzeko/mantentzeko erabakia, elkarrizketatuek adierazitakoaren arabera. 10eko eskala batean 4,64ko balorazioa ematen dute, 1 batere eta 10 erabat izanda, diru-sarrera murrizketak zein neurritan baldintzatzen duen beren erabakia galdetuta.

Aitzitik, uste dute familia eta lana bateragarri egiteko Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen programa egoteak dezente eragiten duela, 5,23ko balorazioa, eszedentzia edo lanaldi-murrizketari heltzeko.

Neurriei heldu dioten pertsonak pozik agertzen dira, aurretik, bitartean eta ondoren, dagokien lanean; beren lanaldiari, opor eta baimenei, laneko egonkortasunari, jasotako soldadari dagokienez. Asebetetze orokorrak ia oso ondo nota du, "igoera lanean" aspektuan izan ezik.

Lanaldi-murrizketari heldutako pertsonen %37,4k baieztatzen dute, ordu gutxiago lan egiten badute ere, lan-kopuru bera egiten dutela. Hauetako heren batek baino gehiagok hautematen du bere produktibitatea lanaldi osoz lan egiten zueneko berbera dela, estres-maila areagotu zien lanaldi-murrizketari heldutako pertsonen %38ko datuarekin lotzen dena.

Lanaldi-murrizketan lan-kopuru bera egiten dutela dioten %51,4ri areagotu zitzaizen estres-maila.

Norberaren zein familiaren asebetetze-maila hobetu egiten da neurri bitartean; neurriari heldu aurretik, norberaren asebetetze-maila 6,7n zegoen 10eko eskalan, asebeteta tartean; neurri bitartean %7,5era handitu zen oso asebeteta tartean. Familiaren asebetetze-maila antzeko parametroetan mugitzen da, 6,8 aurretik eta 8 bitartean.



Heldutako neurri motaren arabera, asebetetze-mailarik handiena, neurri aurretik zein bitartean, eszedentziari heldutakoen kolektiboarengan dago. Neurria abiarazi eta garatu bitarteko egoeren arteko gehitze handiena lanaldi-murrizketari heldutako pertsonen kolektiboarengan gertatzen da, familiaren asebetetze-mailari dagokionez.

Elkarrizketatuen %90,6k diote “bai, ziur” edo “bai, ia ziur” helduko lieketela berriz mota honetako neurriei. %2,8k soilik diote ez luketela egingo.

Eszedentziari edo lanaldi-murrizketari heldutako pertsonen %5,5ek hautematen dute beren erabakiak gaizki/negatiboki eragin duela lankideekiko harremanean, %44,8ren ustez ez du inolako eraginik izan edo berdin zaie, eta %38,3k diote dena joan dela ondo/arazorik barik.

Bestelako ondorio eta jarreraren ehuneko txikiak ere jaso diren arren; inbidiak (%2,2), batzuekin ondo eta beste batzuekin gaizki (%3,9), lankideekin harremana galtzea (%1,7).

Enpresako gaineko arduradunari dagokionez, horiekiko harremanean negatiboki eragin duela eta horiek beligerante (gaizki, arazoekin) agertu direla uste dutenen ehunekoa %14,1ekoa da, batik bat lanaldi-murrizketari heldu diotenen artean. Hala ere, nabarmendu beharra dago gehiengoak direla enpresako gaineko arduradunek ondo hartu dutela edo berdin izan zaiela (%77,6) diotenak.

Enpresa-zuzendaritza/administrazio-sailari dagokionez, %11,7k gaizki eragin duela hauteman dute, arazoak izan dituztela adierazita, %7,1ek diote enpresaren zuzendaritzak negatiboki erreakzionatu duela, baina legea betetzen duela. Hala ere, gehiengoak (%80,5ek) uste du ez duela arazorik izan edo berdin izan zaiela.

Bai gaineko arduradunen kasuan, bai enpresaren zuzendaritzarekin, arazoak neurri handiago batean enpresa pribatuetan izaten dira, eta 25 langile baino gutxiago eta 51 eta 100 langile bitartean dituztenetan. Nahiz eta ez dagoen erreakzio negatibo hauetatik libre dagoen esparrurik, Administrazioan ere gertatzen baitira.



Elkarrizketatuek uste dute neurri hauei heltzeak honako esparruetan sortu dituela eragin negatiboak:

- Lan-arloan %21,1ien ustez (batik bat lanaldi-murrizketari heldutakoen ustez %23,8)
- Etorkizun profesoanlean (igoera lanean...) %15,7ren ustez (%17,8ren ustez lanaldi-murrizketari heldutakoen artean)
- Maila familiarrean %2,4ren ustez
- Maila pertsoanlean %5en ustez

Lan-arloan, Administrazioa/sektore publikoan lan egiten dutenenen %18ri sortzen zaizkie, enpresa pribatuan, berriz, %21,9ri.

Etorkizun profesionalari dagokionez, Administrazioa/sektore publikoan lan egiten dutenenen %9,3ri sortzen zaizkie, enpresa pribatuan, aldiz, %17,2ri.

Enpresaren tamaina ez da esanguratsua, antzeko ondorio negatiboak gertatzen dira langile-kopuru tarte guztietan.

Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak genero-berdintasunaren sustapenerako politiken zati dira, neurri mota hauei heldutako pertsonen iritziaren arabera, horiek asko edo dezente sustatzen dute gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, %40ren ustez; gehiengoak, aldiz, %60k (gehienak emakumeak), ez dutela batere sustatzen edo oso gutxi sustatzen dutela uste du.

Gizonen %72,7 uste dute berdintasuna asko edo dezente sustatzen dutela.

Aurkituriko zailtasun handienak hauek izan dira:

- Oporraldien egokitzapena, ia %50en ustez arazo oso edo nahiko garrantzitsua da.
- Seme-alaba bat gaixo edukitzea, arazo oso edo nahiko garrantzitsua %44,8ren ustez.
- Eskola-ordutegiak lanekoei egokitzea, oso edo nahiko garrantzitsua %44,3ren ustez.
- Ordutegi-malgutasun eza, oso edo nahiko garrantzitsua %38,1en ustez.
- Lanordu asko, oso edo nahiko garrantzitsua %31,8ren ustez.
- Pediatren edo beste sendagile batzuen ordutegia, oso edo nahiko garrantzitsua %27,0ren ustez.
- Irakasleekin harremana izateko norberaren ordutegia egokitzea, oso edo nahiko garrantzitsua %23,0ren ustez.

- Hartzaindegi edota bestelako zerbitzu soziokomunitarioen ordutegi txarra, oso edo nahiko garrantzitsua %20,4ren ustez.
- Hartzaindegi edota bestelako zerbitzu soziokomunitario eza, oso edo nahiko garrantzitsua %19,4ren ustez.
- Etxetik lanera joateko gehiegizko denbora, oso edo nahiko garrantzitsua %17,9ren ustez.
- Kontratatzeko zaintzaileak bilatzeko zailtasuna, oso edo nahiko garrantzitsua %16,2ren ustez.
- Bikotekidearen laguntza eskasa, oso edo nahiko garrantzitsua %10,9ren ustez.

Oso esanguratsua da aztertutako zailtasun horien artean gutxien eragiten diona bikotekidearen laguntza eskasa izatea.

Bi dira hori neurri handiagoan lortzeko aurkitutako faktore erabakigarriak: ekonomikoa eta heziketa/aldaketa kulturala.

Familia eta lana bateragarri egiteko oztopo gisa, hurrengoak nabarmentzen dira elkarrizketatuen iritziak aztertu ondoren:

- Emakumeen soldata txikiagoa, soldaten parekotasuna edo emakumeentzako soldata handiagoa ere nahitaezkoztat jotzen dira egungo egoerari buelta emateko.
- Nagusi den kultura patriarkala eta berdintasunean oinarritutako hezkuntza eza, jendartearen pentsamoldea eta egungo balio sozialak aldatu egin behar dira, emakumeengan zein gizonengan.
- Pizgarri ekonomiko eta laguntza eza, laguntza ekonomiko gehiago eta hobeak behar dira.
- Honi dagokion enpresa-kontzientzia eskasa.
- Ordutegi-malgutasun eza enpresetan.
- Informazio urria
- Legerian betebeharrekoa ez izatea, gizonen neurriari hel diezaieten.

Laguntza ekonomikoaren garrantziaren gaiari berriz helduta, elkarrizketatuek uste dute Eusko Jaurlaritzaren laguntzaren zenbatekoa oso garrantzitsua/erabakigarria dela neurriari heltzeko orduan, %26,8k uste dute hori, %37,8k uste dute ez dela oso erabakigarria eta %34,2ren iritziz ez da garrantzitsua/erabakigarria, eszedentziari heldutakoaren %45,3ren ustez.

Neurriei heldutako elkarrizketaturikoen esperientziaren arabera ikusten da enpresen %54,9k asko edo nahiko lagundu dutela neurri hauen ezarpen edo garapenean. Aitzitik, enpresen %45,1ek gutxi egin dute edo ez dute egin.

Eszedentzia edo lanaldi-murrizketa baten aurrean, enpresaren jarrera izan da beste langile bat kontratatzea lanpostu hori estaltzeko, kasuen %52,8an, %68,7an eszedentzien kasuan.

Enpresa gehienetan, %56,9k uste dute egongo litzatekeela beste neurri batzuk hartzeko aukera, esaterako, ordutegi-malgutasuna, etxetik lan egitea, oporraldiak seme-alaben oporraldiei egokitzea... eta, hain zuzen, zenbait enpresatan abian dira.

Beste enpresa batzuetan abian ez jartzeko arrazoiak, elkarrizketatuen iritzien arabera, aspektu hauetan laburbil daitezke:

- Ohitura/kontserbadorismoa, aldaketarako tradizio eskasa.
- Arrazoi ekonomikoak, kostu erantsiak edo etekin ekonomikorik eza.
- Erosotasuna.
- Enpresaren tamaina.
- Interes eza.
- Zailtasun handia.
- Planteamendu eza.
- Enpresaren tamaina txikia.
- Langileen arazoak kontuan ez hartzea.
- Jardueraren ezaugarriek eragozten dute.
- Legerian betebeharrekoa ez izatea.

Azterturiko kolektiboan kontuan gehien harturiko neurriak ordutegi-malgutasuna (%60,2), lanaldi jarraitu/intentsiboa (%40,4) eta oporraldien egokitzapena (%39,7) dira.

Era berean, jarraiki, hitzez hitz agertzen dira izan daitezkeen neurri edo gaiak, familia eta lana bateragarri egiteari dagokionez, elkarrizketatuek galdera irekiari erantzunda:

- *“Lan eta eskola-ordutegiaren egokitzapena”*
- *“Eskolaz kanpoko jarduerak udan eta oporretan (hiriko jolasguneak, kanpamentuak...)”*
- *“Hautzaindegiak lantokietan, enpresa-guneetan, merkataritza-zentroetan...”*

- “Eszedentzia eta lanaldi-murrizketei heltzeko haurren adin muga handitu (10, 12, 14 edo gehiagora)”
- “Oporraldiak hautatzeko aukera”
- “Ordutegi-malgutasuna hainbat mailatan”
- “Amatasun-baja urtebetera luzatu”
- “Lanaldi-murrizketa moten aukerak gehitu”
- “Neurriek iraun bitartean, %100 kotizatu gizarte-segurantzari ondorio guztietarako (erretiroa...)”
- “Laguntzak enpresei laguntza-kontratuak egiteko, neurriek iraun bitartean”
- “Araudia egokitu seme-alabak jarraian direnean”
- “Baimenak/malgutasuna pediatrarenera joateko, seme-alabak gaixo daudelako, irakasleekin harremanetarako.”
- “Emakume eta gizonen soldatak parekatu”
- “Lan-ordutegia: 8:00etatik 15:00etara edo 9:00etatik 17:00etara”
- “Laguntza ekonomiko gehiago eta handiagoak”
- “Pertsonen kontratazioa murrizketa eta eszedentzia estaltzeko”
- “Aldi laburretarako eszedentzia”
- “Autonomoen tasen murrizketa neurriak iraun bitartean”
- “Enpresei diruz lagundu malgutasun-kostuak”
- “Laguntza/diru-laguntzen ordainketa arindu”
- “Aldi baterako langileekiko diskriminazioa desagerrarazi”
- “Enpresak legea betetzera behartu, errepresalia eta desberdintasunik barik”
- “Langile eta enpresei zuzendutako informazio-kanpaina”
- “Neurriak eskatzeko gizonen betebeharra”
- “Enpresak diruz lagundu langileei oztoporik ez jartzeko”
- “Laguntza/diru-laguntzen zenbateko handiagoa”
- “Laguntza ekonomiko gehiago”
- “Hautzaindegi eta zerbitzu soziokomunitario gehiago”
- “Eusko Jaurlaritzaren Bulegoa langileen aholkularitzarako”
- “Diru-laguntzen denbora-iraupena luzatu”
- “Ordutegi-egokitzapena bikotekideen artean”
- “Enpresen gaineko Administrazioaren kontrol handiagoa neurriak bete ditzaten eta gehiegikeriak ekiditeko”



Elkarrizketatuen iruzkinak ikusita, nabarmena da haurtzaindegien eskaintza ez dela nahikoa, eskola eta lan-ordutegien egokitzapen eza eta medikuarenera joan beharra arazo serioa direla familia askorentzat. eta oporraldietan oreka eza gertatzen dela familietan denboraren antolaketari dagokionez.

Neurrien egungo adin mugak zurrunezi edo eskasegitzat jotzen dira, iradokizun gehienek diote seme-alabaren adina 12 urtera arte igo behar dela eszedentzia eta lanaldi-murrizketen kasuan. Amatasun-bajen kasuan, urtebetera luzatu beharra dagoela diote.

Bestetik, enpresentzako laguntzak eskatzen dira enpresek neurriei heltzea ahalbidetzeko, eta, aldi berean, enpresen gaineko kontrol handiagoa exijitzen da, enpresok egungo araudia bete dezaten eta neurriei heldutako langileekiko errepresaliarik ez dadin egon.

Beste kontu bat da elkarrizketatuek uste duten beren enpresa edo lan-jardueran bideragarri izan daitezkeen; aurretik egiaztatu da elkarrizketatuek proposaturiko neurri gehienetan zertxobait murrizten dela bideragarri direla uste dutenen ehunekoak.

Osotara, elkarrizketatuen %56,9k uste dute proposaturiko neurrietariko batzuk badirela bideragarriak beren lantokietan, batik bat Administrazioan/enpresa publikoetan, %67,9k uste du hori.

Azken ondorio moduan, honako aspektuak nabarmen ditzakegu:

- Familia eta lana bateragarri egiteko neurriei heltzen dioten pertsonen feminizazioa.
- Emakumeen ehuneko garrantzitsu baten ustez, berea baino ez da haurrak zaintzeko erantzukizunaren eskubidea.
- Neurririk erabilien eta gustukoena lanaldi-murrizketa da, haurren eta mendekoen zaintza eta lan-jarduera bateragarri egitea ahalbidetzen duelako.
- Neurri hauek erabiltzeak ondorio negatiboak ditu garapen profesionalean, lehenik emakumeei eraginda.
- Zein bikotekidek eskatzen duen neurria erabakitzeko elkarrizketatuek emandako arrazoi nagusiak ekonomikoen eta balio kulturalen arteko konbinazioa dira. Hori dela eta, neurri handiagoan emakumeek heltzen diete neurriei, bikotekideak baino diru-sarrera txikiagoak izatearen ondorioz eta beren seme-alaben zaintza egikaritzeko eskubidea beretzat hartzeagatik.



- Neurriekiko asebetetze-maila handia da eta, mugatuak badira ere, ondorio positiboak ditu gizonek erantzukizunak bere gain hartzeari eta emakumeak ahalduntzeari dagokienez.
- Gizonen neurriei heltzeko oztopo handiak beren enpresetan balio aldaketa gertatu beharrean eta beraien gainean egikaritzen den presio sozialean dautza.



ERANSKINAK

TAULAK

Familia eta lana bateragarri egiteko neurriei heltzeko motibazioak

ESZEDENTZIA
- Seme-alabak zaintzeko laguntza eza senideen aldetik
- Beren seme-alabak zaintzeko denbora gehiago, haurtzaindegira eramatearen edo beste pertsona batzuekin uztearen kontrakoak dira
- Denbora gehiago seme-alabekin egoteko
- Seme-alabarekin egoteko denbora gehiago. Emakumea erantzuleago sentitzen zen
- Aita izatearen lehen hilabete-urte horiek bete-betean bizi nahi nituelako, baina nire lana eta erritmoak ez zidan horretarako aukerarik ematen. Amatasuna bizi nahi nuelako
- Seme-alabaren zaintza jarraitua
- Seme-alabak zaindu
- Haurrak zaindu, ez baitago laguntzeko seniderik eta amak berak zaindu nahi zituen
- Haurra denbora gehiagoz eta kalitate hobez zaindu
- Denbora partekatu alabekin
- Nire ordutegiarekin ezin nuen haurra zaindu
- Edoskitzarekin jarraitu eta denbora gehiago igaro haurrarekin
- Haurra zaintzen jarraitu eta ez kontratatu zaintzailerik
- Haurra hazi
- Haurrak zaindu eta denbora gehiago eman eurekin
- Amaren zaintza
- Neskakilaren zaintza, haurtzaindegi/eskolara eraman
- Haurren zaintza. Bizi-kalitate hobea
- Seme-alaben zaintza, hasieran beti gurasoekin egotea nahi genuen
- Haurren zaintza, hirukiak dira
- Haurraren zaintza, ordutegiagatik
- Haurraren zaintza. Guraso izateaz gozatu
- Haurraren zaintza. Bazituzten aurrezki batzuk, eta erabaki zuten haietariko batek zainduko zuela, gutxienez lehen urtebetean
- Seme-alabak berak zaintzea
- Amak zaintzea
- Aitak zaintzea
- Haurrak zaintzailerik barik zaintzea
- Haurrak zaintzea, batik bat txikia, nahiz eta bikotekideak asko laguntzen dion
- Haurra bere oporraldietan zaintzea, ez baitzeukan norekin utzi
- Haurrak zaindu eta haiekin ahalik eta denbora gehien eman
- Semea zaintzea, ordutegi txarra semearekin egon ahal izateko, ohiko lanaldiari eutsiz gero
- Haurra zaintzea, hain txikia izanda inorekin utzi barik
- Haurrak zaintzea, zaintzaile bat kontratatuz gero, legearen barruan gizarte-segurantzarekin eginez gero, soldatarik barik geratzen zarelako, eta ez zuen merezi. Hobe da eurekin egotea inor kontratatzea baino
- Bere haurrak berak zaintzea eta beste pertsona bat kontratatzeko ezintasuna
- Udan haurrak zaintzea
- Ez balitz hala izango, pertsona bat kontratatu beharko zuen haurrak zaintzeko, eta nahiago zuen berak egin
ESZEDENTZIA



- Familiarekin egotea
- Seme-alabez gozatzea
- Denbora izatea
- Haurrak hezi eta etxean eduki
- Bere haurrak haien lehen urteetan hezi. Zaintzaz arduratzeko pertsona bat kontratatzea garesti ateratzen da
- Jaioberria txikia zen, amaren beharra zuen
- Mendeko pertsonen zaintza
- Haurren zaintza eta gogoa zeukalako
- Haurren zaintza eta ordutegiagatik
